



i. Kasu eta komunztadura

i.1. Numero komunztadura: -z non-nahi

Egilea: Ane Odria

Nola aipatu: Odria, Ane. (2022). Numero komunztadura: -z non-nahi. In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=10&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

numero komunztadura, pluralgileak

Deskribapena

Euskaraz, ergatibo, absolutibo eta datiboz markatutako argumentuek numero komunztadura eragiten dute. 3. pertsonako argumentu absolutiboen kasuan, gainera, pluralgilea da argumentuak aditz inflexioan eragiten duen ageriko komunztadura marka bakarra.

Euskarak hainbat pluralgile ditu absolutibo argumentuen numero plurala markatzeko: -z (*doa/doaz*), -z (*daukagu/dauzkagu*), -zki- (*diogu/dizkiogu*), -tza (*dabil/dabiltza*), -it- (*dugu/ditugu*), edota -de (*dago/daude*) (Hualde 2003b, 2016). Eredu orokor honen adierazle dira, beraz, honako aditz formak:

(1a) daude

		(3ABS).egon.PL
(1b)	dakartza	(3ABS).ekar.PL.3ERG
(1c)	etorri zaizkio	etor.PTCP (3ABS).izan.PL.APPL.3SG.DAT
(1d)	eman dizkio	eman.PTCP (3ABS).edun.PL.APPL.3SG.DAT.3ERG

Zenbait euskal hizkeratan, ordea, pluralgile aukera zabal hori erabili beharrean, -z pluralgilea agertzen da non-nahi. Hala, goiko *daude* (1a), *dakartza* (1b), *etorri zaizkio* (1c) edota *eman dizkio* (1d) adizkien partez, *dagoz* (2a), *dakarz* (2b), *etorri jakoz* (2c) edota *emon deutsoz* (2d) bezalakoak erabiltzen dira.

(2a)	dagoz	(3ABS).egon.PL
(2b)	dakarz	(3ABS).ekar.PL.3ERG
(2c)	etorri jakoz	etor.PTCP (3ABS).izan.APPL.3SG.DAT.PL
(2d)	emon deutsoz	eman.ptcp (3ABS).edutsi.APPL.3SG.DAT.3ERg.PL

Horrez gain, hizkera batzuetan forma iragankorretako **edun* aditz laguntzailearekin ere azaltzen da -z pluralgilea. Hizkera hauetan, *ikusi ditut* edo *ikusi ditu* beharrean *ikusi dodaz* (3a) edota *ikusi dauz* (3b) bezalakoak erabiltzen dira. Hona hemen zenbait adibide:

(3a)	ikusi dodaz	ikus.PTCP (3ABS).edun.1SG.ERG.PL
(3b)	ikusi dauz	ikus.PTCP (3ABS).edun.3ERG.PL

(4a)	ikusi ditut	ikus.PTCP (3ABS).PL.edun.1SG.ERG
(4b)	ikusi ditu	ikus.PTCP (3ABS).PL.edun.3ERG

Banaketa dialektala

tEuskara batuan -z pluralgilea 3. pertsonako absolutibo argumentuaren pluraltasuna adierazteko erabiltzen da. Datibodun adizkietan (ditransitibo zein iragangaitzetan) -*ki*- morfemaren –aplikatibo edo aurredatibo deitu izan zaiona (Hualde 2003b: 211)– aurretik agertzen da -*zki*- forma sortuz: *dizkigu*, *zaizkigu*. Pluralgile hau ergatiboa 3. pertsonako plurala denean agertzen da besteak beste (*dituzte*).

Mendebaleko euskararen ordea, -z pluralgilea euskara batuan baino testuinguru gehiagotan agertzen da, orokortu eta gainerako pluralgileen lekua hartuaz (Hualde 2003b, 2016; Zuazo 2006, 2014, 2017). (5) adibide-multzoan ikus daitekeenez, hizkera hauetan -z pluralgileak lapurterazko -*tza*- edo gipuzkerazko -*zki*- pluralgileen lekua hartzen du (Hualde 2003b: 240–241):

(5a)	<i>dakarzkit</i> (G) (3ABS).ekar.PL.1SG.ERG	/ <i>dakartzat</i> (L) (3ABS).ekar.PL.1SG.ERG	/ <i>dakardaz</i> (B) (3ABS).ekar.PL.1SG.ERG
(5b)	<i>daramazkit</i> (G) (3ABS).eraman.PL.1SG.ERG	/ <i>daramatzat</i> (L) (3ABS).ekar.PL.1SG.ERG	/ <i>daroadaaz</i> (B) (3ABS).ekar.PL.1SG.ERG
(5c)	<i>dakizkit</i> (G) (3ABS).jakin.PL.1SG.ERG	/ <i>dakitizat</i> (L) (3ABS).jakin.PL.1SG.ERG	/ <i>dakidaz</i> (B) (3ABS).jakin.PL.1SG.ERG

Zuazok (2014, 2017) dioenez, -z pluralgilearen hedapena mendebaleko euskararen aspaldiko -berrikuntza da, Araba osora hedatu zena, eta denborarekin gero eta indartsuagoa egin dena. Ez dira gutxi pluralgile honekin osatzen diren adizkiak (Zuazo 2017: 136). (2), (3) eta (5)-ko adibideekin batera aurki ditzakegu baita *dostez* ‘dizkit’, *jakoaz* ‘zaizkio’, *doguz* ‘ditugu’, *dagoz* ‘daude’, *dekoz* ‘dauzka’ edo *leikez* ‘daitezke’ ere (Zuazo 2014: 94). Horrez gain, hizkera batzuetan *izan*-en adizkiek ere -z hartzen dute berez pluralgilerik behar ez denean ere (Zuazo 2017: 30). Horren adibide dira (6)-ko aditz formak:

(6a)	<i>diras</i> (3ABS).izan.PL.PL	‘ <i>dira</i> ’
(6b)	<i>gintzesan</i> / <i>giñasen</i> 1PL.ABS.izan.PL.PST / 1PL.ABS.izan.PL.PST	‘ <i>ginen</i> ’
(6c)	<i>sintzesan</i> /siñasen 2ABS.izan.PL.PST / 2ABS.izan.PL.PST	‘ <i>zinen</i> ’

Halaber, aipatzekoak dira adizki iragankorretan -z pluralgilea gehituta sortutako pluralgile bikoitzeko egiturak ere. (7)-ko aditz formak, adibidez, (3a) eta (3b)-koen kideko izango lirateke. Batean zein bestean -z pluralgilea erabiltzen da, baina (3)-ko adibideetan -z da adizkiak erakusten duen pluralgile

bakarra, eta (7)-koetan -z eta -it-, bi pluralgile agertzen dira aditz forma berean. Horrenbestez, hizkera hauetan -it- pluralgilearen balioa galdu egin dela esan dezakegu, berau agertzen denean ere -z pluralgilea gehitzearen beharra ikusten baitute hiztunek.

(7a)	ditudas (3ABS).pl.edun.1sg.ERG.PL	‘ditut’
(7b)	ditus (3ABS).PL.edun.(3SG.ERG).PL	‘ditu’

Antzeko zerbait gertatzen da -tza pluralgilearekin ere, *izan* aditzaz gain baita *ibili*-rekin ere. Zuazok (2017: 30) dioenez, Uribe Kostan, Txorierrri gehienez –Leioa eta Zamudio artean–, Mungialdeko hizkera batzuetan –Mungia, Meñaka, Bakio, Gamiz-Fika–, Nerbioi ibarrean eta itsasbaterreko beste herri batzuetan (Bermeo, Lekeitio) geratzen da. Ikus, esate baterako, (8)-ko adibideak:

(8a)	gabiltzes 1Pl.ABS.ibil.PL	‘gabiltza’
(8b)	sabiltzes 2ABS.ibil.PL	‘zabiltza’

Esan bezala, -z pluralgilearen nagusitasuna mendebaleko euskalkiaren ezaugarria da, Bizkaiko eta Deba Ibarreko hizkerez gain, Arabako lekukoetan ere aurkitzen dena (Zuazo 2017: 31). Halaxe jaso izan dute euskarari zein euskal dialektologiari buruzko lan orokorrek ez ezik (Hualde 2003b, 2016; Zuazo 2006, 2014, 2017), baita herri hizkeren gaineko deskribapenek ere –ikus, besteak beste, Hualde, Elordieta eta Elordieta (1994) Lekeitioko euskararako, Sarasua, Agirrebeña eta Zenarruzabeitia (2005) Eibarkorako eta Makazaga (2009) Elgoibarkorako–.

Hala, mendebaleko euskalkia gainerako euskalkietatik bereizten duen ezaugarria izanik, fenomenoaren muga mendebaleko eta erdialdeko euskalkien arteko tarteko hizkeretan aurkitzen da, Debabarreneko Mutrikun, Mendaron, eta bereziki, Elgoibarren (Zuazo 2006; Makazaga 2009). Muga horren adierazle da Debabarreneko hizkeren pluralgileen erabilerari dagokionez erakusten duten aldakortasuna. Makazagak (2009: 473) azaltzen duenez, Debabarreneko hizkera batzuek mendebaleko euskalkiari eusten badiote ere, beste batzuek erdialdeko euskalkirantz jotzen dute. Eibarko, Elgoibarko, Mendaroko eta hein batean Mutrikuko hizkerak dira -z pluralgilea erabiltzeko joera erakusten dutenak. Debako hizkerak, berriz, alderdi honetan ere erdialdeko euskalkiarekin egiten du bat. Horrez gain, mendebaleko euskalkian kokatzen den Eibarko hizkerak pluralgile aukera txikiagoa erakusten du Elgoibarko, Mendaroko, Mutrikuko eta Debako hizkeren aldean. Makazagak (2009: 468) dioenez, beraz, tarteko hizkeratzat hartu ohi den Elgoibarko hizkerak mugatzen du pluralgileen auzia. Elgoibarren mendebalean baino pluralgile aukera zabalagoa dago, -z plural markarekin batera, -it- mendebaleko hizkeretan baino gehiago erabiltzen baita, baita *daude/daure* ere. Bestalde, kilometro gutxira egon arren, Eibarren -z da erabiltzen den pluralgile ia bakarra. Dena dela, mendebalerago kokatzen diren beste hizkera batzuekin alderatuz, Eibarren -z pluralgiledun *dozuz* edota *doguz* bezalako adizkiekin batera agertzen dira -it- pluralgiledun *dittuzu* edota *dittugu* ere (Sarasua, Agirrebeña eta Zenarruzabeitia 2005: 233–234). Horrez gain, Elgoibarren bezala, Eibarren ere badira -it- eta -z pluralgileak batzen dituzten forma pleonastikoak: *dittuzuz*, *nittuazen*, *nittukez*, *jittuaraz*, *giñazen*

, *diraz*, *garaz*... (Zuazo 2006: 85). Hona hemen Sarasua eta bestek (2005: 235) jasotako bi adibide. (9a) adibidean plural bikoizketa ikus dezakegu, *-it-* eta *-z*, biak agertzen dira nittuazen adizkian. (9b) adibidean, berriz, *-z* pluralgilea dagoeneko pluralekoa den 1. pertsonako absolutibozko *g-* morfemari gehitzen zaio.

(9a)	Eibarrera	bueltau	nitzanian	ez <i>nittuazen</i>
	Eibar.ALL	buelta.PTCP	1SG.ABS.izan.PST.COMP	ez 1SG.ERG.PL.edun.PL.PST
	kaliak	ezautzen		
	kaleak.ABS	ezagutu.IPFV		
(9b)	Gu	han	refujiauak	<i>giñazen</i>
	gu.ABS	han	errefuxiatuak.ABS	1PL.ABS.izan.PL.PST

Aipatzekoa da, orobat, mugako hizkerak izanik, Eibarren eta Elgoibarren adizki bakarrean ikus daitezkeela mendebaleko eta erdialdeko euskalkien ezaugarriak. Mendebaleko hizkera gehientsuenetan ez bezala, hizkera hauetan erdialdean nagusitzen den *-i-* erroa erabiltzen da forma ditransitiboetan erroa, ez mendebaleko *-ts-*. Hala ere, erdialdean ez bezala adizki ditransitiboetara *-z* pluralgilea eranstean zaie *dioz* ‘dizkio’, *diazuz* ‘dizkidazu’ edota *niozen* ‘nizkion’ bezalako formak sortuz. Debarreneko bereizgarri dira aditz forma hauek (Zuazo 2006: 86).

Zuazok (2006: 136–137) berak ere aipatzen du Debarrenean ez dela mendebalean bezainbestekoa *-z* pluralgilearen nagusitasuna. Hizkera hauetan *egon*-en adizkietako *-de* (>-r: *gare* ‘gaude’, *dare* ‘daude’) oso zabaldua dagoela azaltzen du Zuazok. Horrez gain, Deba Ibarraz ari dela, Bergara eta Antzuolako hizkerak *-z* pluralgilea nagusitzen den eremutik kanpo daudela azaltzen du (Zuazo 2006: 136).

Datu-basearen emaitzak

Datu-baseak argi erakusten du *-z* pluralgilearen orokortzea mendebaleko euskalkiaren ezaugarria dela eta Debarrenean dagoela, hain zuzen ere, fenomenoaren muga. (2a) eta (2c) formak, adibidez, Bergararik eta Azpeititik (biak barne) ekialdera ez dira lekukotzen –bai, ordea, Elgoibarren–. (2b) eta (2d) berriz, Bergararik eta Elgoibartik (biak barne) ekialdera ere ez –(2d)-ren lekuan Elgoibarren *dioz* erabiltzen da (Makazaga 2009: 475). Zuazok (2006) eta Makazagak (2009) esandakoarekin bat egiten du, beraz, datu-baseak. Horrez gain, Zuazok (2006: 136) dioen bezala, mendebaleko euskalkian kokatzen den arren, Bergarako –eta Antzuolako– hizkerak alderdi honetan erdialdeko hizkerak bezala jokatzen duela ikus daiteke datu-basean jasotako erantzunetan.

Bestalde, azpi-hizkera erdua oraindik eta mendebalekoagoa dela erakusten du BiV datu-baseak. Kasu honetan, (3a) Aramaiotik, Bergararik eta Elgoibartik (hirurak barne) ekialdera ez da jasotzen, eta (3b) Aramaiotik eta Mallabitik (biak barne) ekialdera ere ez. Hortaz, BiVn jasotako erantzunak bat datoz herri hizkeren deskribapenek eta dialektologia lan orokorragoek erakutsi izan dutenarekin.

Aipamenak

- Hualde, José Ignacio, Gorka Elordieta and Arantzazu Elordieta. 1994. *The Basque dialect of Lekeitio*. Bilbo and Donostia: PV/EHU and Gipuzkoako Foru Aldundia. Supplements of the *International Journal of Basque Philology ASJU* 34.
- Hualde, José Ignacio. 2003b. «Non-finite Forms». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 196-246.
- Hualde, José Ignacio. 2016. «On Basque dialects». In Beatriz Fernández and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *Microparameters in the grammar of Basque*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 15-36.
- Makazaga, Jesus Mari. 2009. *Elgoibarko euskara*. Ph.D. diss., UPV/EHU.
- Sarasua, Asier, Aintzane Agirrebeña and Leire Zenarruzabeitia. 2005. *Eibarko euskara. Gure hizketaren doinu eta berbak*. Eibar: Eibarko Udala.
- Zuazo, Koldo. 2006. *Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta tokiko batua*. Badihardugu Euskara Elkartea.
- Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, Koldo. 2017. *Mendebaleko euskara*. Donostia: Elkar.

i.2. Numero komunztadura: -(t)z- egitura datibodunetan (v -zki-)

Egilea: Ane Odria

Nola aipatu: Odria, Ane. (2022). Numero komunztadura: -(t)z- egitura datibodunetan (v -zki-). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=45&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

datiboak, numero komunztadura, pluralgileak

Deskribapena

Euskara batuan, egitura iragangaitz zein iragankor datibodunetako absolutibo argumentuaren pluralgilea -zki- da:

(1)	Loreak	gustatu	zaizkio
-----	--------	---------	---------

lore.ABS.PL gusta.PTCP (3ABS).PL.edun.3SG.DAT

Euskara zuberotarrean, berriz, *-zki-* beharrean *-(t)z-* da sail horietako pluralgilea:

(2) Loreak gustatu zaitzo
 lore.ABS.PL gusta.PTCP (3ABS).PL.edun.3SG.DAT

Banaketa dialektala

Fenomenoaren eremu dialektala Zuberoara mugatzen da (Zuazo 2014: 85). Zuazok (2014: 85) dioenez, egitura datibodunetan –iragangaitz zein ditransitiboetan– Zuberoan *-(t)z-* plural marka erabiltzen da erdialdeko euskalkiko *-zki-* pluralgilearen lekuan. Datibodun iragangaitzen artean, *záitzat* (eta *záízt*) ‘zaizkit’, *záitzak/záitzan* ‘zaizkik/aizkin’, *záitzo* ‘zaizkio’, *záitzkiü* ‘zaizkigu’ eta *záitzü* ‘zaizkizu’ jasotzen ditu Zuazok. Adizki ditransitiboen artean, ostera, *deízt* ‘dizkit’, *deízkü* ‘dizkigu’ eta *deíztót* ‘dizkiot’. Pluralgile honek indarra hartu du gazteen hizketan eta bestelako adizkiekin ere erabiltzen da. Hona hemen Zuazok (2014: 85) berak jasotako adibide bat:

(3) Fenoméno berik tútzak eta ene hipotesíen abéa analizátü
 díátzat
 ‘Fenomeno berriak dituk eta ene hipotesien arabera analizatu
 dítíat’

Datu-basearen emaitzak

Zuazok (2014) esandakoarekin bat eginez, Urdiñarben (Zuberoa) bakarrik lekukotzen da *-(t)z-* pluralgilea datu-basean.

Aipamenak

Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

i.3. -----2. pertsona ergatiboko numero komunztadura: *-e* (v *-te*)

Egilea: Ane Odria

Nola aipatu: Odria, Ane. (2022). -----2. pertsona ergatiboko numero komunztadura: *-e* (v *-te*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)*

Gako-hitzak

bigarren pertsona, ergatiboa, numero komunztadura, pluralgileak

Deskribapena

Euskara batuan, 2. pertsona ergatiboko pluralgilea *-e* da aditz jokatuan:

(1)	Zuek	saria	lor্তু	duzue
	zuek.ERG	saria.ABS	lor.PTCP	(3ABS).edun.2PL.ERG

Erdialdeko zenbait hizkeratan, berriz, *-te* da pluralgilea (Zuazo 2014: 57, 117-118; Hualde 2016):

(2)	Zuek	saria	lor্তু	duzute
	zuek.ERG	saria.ABS	lor.PTCP	(3ABS).edun.2PL.ERG

Gipuzkoan Donostia-Hernani lerroan hasi eta Irun bitarte, eta Nafarroan Goizuetan Basaburu Nagusian eta Imotzen erabiltzen da *-te* pluralgilea ergatiboko 2. pertsonarako (Zuazo 2014: 57, 118).

Goiko (2) adibideko *duzute* aditz formaz gain, *diozute* (3a) edota *nauzute* (3b) bezalakoak erabiltzen dira hizkera hauetan (Zuazo 2014: 117).

(3a)	diozute	‘diozue’
(3b)	nauzute	‘nauzue’

Halaber, aipatzekoa da hizkera hauetan ergatiboaz eta absolutiboaz gain, datiboak ere erakusten duela *-te* pluralgilea. (4) adibidean, esaterako, datiboarekin ere erabiltzen da 2. Pertsonarentzat *-te* plural marka (Zuazo 2014: 57):

(4)	zaizute	‘zaizue’
-----	---------	----------

Banaketa dialektala

Fenomeno hau Donostia-Hernani lerroan hasi eta Irun bitartean gertatzen da, baita Nafarroan Goizuetan, Basaburu Nagusian eta Imotzen ere (Zuazo 2014: 57, 118). Gipuzkoa eta Nafarroa arteko erdialdeko euskararen hizkera batzuetako ezaugarria da, beraz, *-te* pluralgilea erabiltzea ergatiboko 2. pertsonarako ez ezik baita 3. pertsonarako ere. Ertzetako euskalkietan, ostera, mendebaleko euskararen

eta euskara zuberotarrean *-e* forma zabarra nagusitzen da (Hualde 2016).

Datu-basearen emaitzak

Datubaseak erakusten duen irudiak bat egiten du fenomenoari egotzi izan zaion banaketa dialektalarekin. Gipuzkoako ipar-ekialdeko hizkeretan agertzen da, Erreterria, Oiartzun eta Hernanin, baita Nafarroako Goizuetan ere.

Eztabaida teorikoa

Zuazok (2014: 117) azaltzen duenez, ergatiboko 2. pertsona pluralerako *-te* morfema erabiltzea erdialdeko hizkeretan absolutiboko 2. pertsonarako erabiltzen den *-te* plural marka zabaltzetik dator. Zuazok berak dioen bezala, fenomeno honen eremu dialektala txikiagoa da ergatiboko 2. pertsonako *-te* plural markarena baino, eta egitura berriagoa dela erakusten du horrek. Horixe bera iradokitzen dute Hurtadok (2001: 100-103) Goierri eta Tolosalde hegoaldean bildutako datuek ere. Hizkera hauetan 2. pertsona ergatiborako *-te* pluralgilea erabiltzea 3. pertsona ergatiborako *-te* erabiltzea baino fenomeno berriagoa da. XVIII. mendearen amaieran, esaterako, Larramendiren arabera Donostiatik Tolosaraino *-te* pluralgilea zegoen ergatiboko 3. Pertsonarako (baita *-e* ere, jakina), baina ez ergatiboko 2. pertsonarako. Hurtadok berak ere Tolosan eta Ibarren 2. Pertsona ergatiborako *-e* pluralgilea bildu zuen Tolosan eta Ibarren, baina tarteka *-te* ere bai.

Aipamenak

Hualde, José Ignacio. 2016. «On Basque dialects». In Beatriz Fernández and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *Microparameters in the grammar of Basque*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 15-36.

Hurtado, Irene. 2001. *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*. Lazkao: IX. Gerriko Ikerlan Sariketa.

Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

i.4. Pluraleko 3. pertsona ergatiboko numero komunztadura: *-e* (v *-te*)

Egilea: Ane Odria

Nola aipatu: Odria, Ane. (2022). Pluraleko 3. pertsona ergatiboko numero komunztadura: *-e* (v *-te*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=44&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

ergatiboa, hirugarren pertsona, numero komunztadura, pluralgileak

Deskribapena

Euskara batuan pluraleko 3. pertsona ergatiboko komunztadura marka *-te* da:

(1)	Haiek	dute
	haiek	(3ABS).edun.3PL.ERG

Mendebalean eta Zuberoan, ordea, *-e* erabiltzen da *-te* beharrean (Hualde 2016)

(2)	Hareek	dabe	(< daue)
	haiek	(3ABS).edun.3PL.ERG	

Horrez gain, beste zenbait hizkeratan forma iragankorretan *-de* > *-re* pluralgile zaharra ageri da **edun* aditz laguntzailearekin.

(3)	Hareek	deure
	haiek	(3ABS).edun.3PL.ERG

Banaketa dialektala

Zuazok (2014: 118) dioenez, 3. pertsona pluralerako *-te* aldaera erabiltzen da Lapurdin, Nafarroa Beherean, Nafarroako erdiguneko eremu zabalean eta Gipuzkoako ipar-ekialdean, Donostia-Hernani lerroan hasi eta Irun bitartean. Nafarroako Zaraitzu eta Erronkari ekialdean, Araitz-Betelu, Larraun, Basaburu Txiki gehienez eta Sakana mendebalean, berriz, *-e* aldaera erabiltzen da gehienbat: *due/die*. Gaur egun ordea, eremu horietan ere euskara batuaren eraginagatik asko zabaldu da *-te*.

Mendebaleko euskararen ere *-e/-de/-dea/-die* izan ohi da ergatiboko 3. pertsonaren pluralgilea (Zuazo 2017: 31) (4).

(4a)	dakie
	(3ABS).jakin.3PL.ERG
(4b)	dakarre
	(3ABS).ekarri.3PL.ERG
(4c)	dauke/dekie/dekoie

Horrez gain, Arabako lekuko batzuetan *-e* agertzen da (Lazarraga eta Betolazaren idatzietan, hain zuzen). Baina *-te* ere bada Lazarraga eta Gamizenetan.

Mendebaleko euskalkiari dagokionez, azpieuskalkiaren arabera *-e* eta *-de* aldaerak erabiltzen direla azaltzen du Zuazok (2017: 46). Sartaldekoak dira *-e/-ie* (5). Sartaldekoak, berriz, *-de/-dea/-die/-rie* (6).

(5) dabe/dabie

(3ABS).edun.3PL.ERG

(6) daude/daudea/daudie/deurie

(3ABS).edun.3PL.ERG

Sartaldearekin egiten du bat Otxandio aldeak eta Busturialdeko eremu txiki batek, Bermeoko baserri auzoek, Morgak eta Zornotza gehienak. Hala ere, Zuazok azaltzen duenez, *-de* hori ez da adizki guztietan agertzen. Getxon, esate baterako, *euen/auden* ‘zuten’, *eusen/audesen* ‘zituzten’, *daraude* ‘daramate’ eta *diñau* ‘diote’ esaten dira, baina baita *lauke*, *dakarre*, *dauke* eta *dakie* ere.

Mendebaleko ezaugarria izanik, erdialdeko euskalkiaren sartaldeko azpieuskalkian ere lekukotzen da *-e* pluralgilea 3. pertsona ergatiborako. Goierriko Beasaingo euskaran, adibidez, (Agirrebeña, Alberdi, Mendiguren eta Sarasua 2007: 48): *due* ‘dute’, *zuen/zoen* ‘zuten’, *dakie* ‘dakite’, *dauke(e)* ‘daukate’... Hurtadok (2001: 103) ere Goierri eta Tolosalde gehienez *-e* (eta *-a*) dagoela dio: *daikie* ‘dezakete’, *daukie* ‘daukate’, *lukee* ‘lukete’, *digue* ‘digute’, *dizue* ‘dizute’...

Datu-basearen emaitzak

Datu-basean ikus daitekeenez, erdialdetik mendebalera zein Zuberoan (Urdiñarben) agertzen da *-e* morfema. Erdialdetik mendebalera *-e* morfema erabiltzen duten hizkerak honako hauek dira: erdialdeko euskaran Azpeitia, Beizama eta Itsasondo; mendebaleko euskaran Aramaio, Artea, Bergara, Elgoibar, Gernika, Getxo, Lekeitio, Loiu, Mallabia, Mungia eta Otxandio; eta euskara nafarrean Urdiain. Erdialdeko euskaran sartaldeko azpieuskalkian (Azpeitia eta Itsasondo) eta sartaldeko eta erdiguneko azpieuskalkien artean (Beizama) lekukotzen da, beraz, fenomeno. Nafarroan ere hego-sartaldeko azpieuskalkian bakarrik jasotzen da, erdialdeko eta euskara nafarraren eraginaz gain, mendebalekoaren eragina ere erakusten duen Burundako hizkeran, Urdiainen, hain zuzen ere.

-de > *-re* pluralgilea, berriz, mendebaleko ezaugarria da guztiz. Artean, Getxon, Loiu, Mungian eta Otxandion lekukotzen da, Zuazok (2014) esan bezala, mendebaleko sartaldeko azpieuskalkian, hain zuzen ere.

Eztabaida teorikoa

Zuazok (2014: 117) dioenez, absolutibozko formatatik abiatuta sortu da ergatiboko 3. pertsonako *-te* aldaera. Halaber, Hualdek (2016) bai *-e* eta bai *-te *de* formatik eratorriko zirela proposatzen du.

Aipamenak

- Agirrebeña, Aintzane, Itziar Alberdi, Xabier Mendiguren and Asier Sarasua. 2007. *Beasaingo euskara. Herrizko hizkeraren azterketa eta ahozko ondarearen bilketa*. Beasain: Beasaingo Udala
- Hualde, José Ignacio. 2016. «On Basque dialects». In Beatriz Fernández and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *Microparameters in the grammar of Basque*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 15-36.
- Hurtado, Irene. 2001. *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*. Lazkao: IX. Gerriko Ikerlan Sariketa.
- Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, Koldo. 2017. *Mendebaleko euskara*. Donostia: Elkar.

i.5. Numero komunztadura: *-it* egitura ditrantsitiboetan (v *-zki*)

Egilea: Ane Odria

Nola aipatu: Odria, Ane. (2022). Numero komunztadura: *-it* egitura ditrantsitiboetan (v *-zki*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=11&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

forma ditrantsitiboak, numero komunztadura, pluralgileak

Deskribapena

Euskal argumentuek numero komunztadura eragiten dute. Forma irangakorretan, osagarri absolutiboaren pluralgilea *-it-* da. Osagarri plurala duten forma ditrantsitiboak, ordea, *dizkiogu* erakoak dira, *-zki-* pluralgiledunak, alegia.

(1a)	Zuk	liburuak	ekarri	dituzu	
	zu.ERG	liburuak.ABS	ekar.PTCP	(3ABS).PL.edun.2SG.ERG	
(1b)	Zuk	Joni	liburuak	ekarri	dizkiozu
	zu.ERG	Jon.DAT	liburuak.ABS	ekar.PTCP	(3ABS).edun.PL.APPL.3SG.DAT.2SG.ERG

Hainbat euskal hizkeratan, ordea, *-it-* pluralgilea erabiltzen da adizki iragankorretan ez ezik ditransitiboetan ere (Zuazo 2014: 54, 61, 64, 118).

(2)	Zuk	Joni	liburuak	ekarri	ditiozu
	zu.ERG	Jon.DAT	liburuak.ABS	ekar.PTCP	(3ABS).edun.PL.APPL.3SG.DAT.2SG.ERG

Banaketa dialektala

Egitura ditransitiboetan *-it-* pluralgilearen erabilera ez da oso aspaldiko berrikuntza eta euskara nafarraren erdialde eta mendebal gehiengan zabaldu da, Imotzen, Basaburuan, Basaburu Txiki iparraldean eta Larraungo ekialdean. Ez, ordea, Burundan, Ergoienan eta Etxarri Aranatzen. Baztanen ere ez da oso fenomeno indartsua. Gipuzkoako ipar-ekialdean ere entzun daiteke, nahiz eta azkenaldian galtzen ari den fenomenoa izan. Eremu honetan, Hondarribian iraun du fenomenoak (Zuazo 2013: 73).

Euskal Herriko erdigunean nagusitzen den *-zki-* pluralgilearen ordez, adizki ditransitiboetan *-it-* pluralgilea erabiltzen da euskara nafarrean zein erdialdeko euskararen sortaldeko azpi-euskalkian. Zuazok (2014: 61, 118) dioenez, euskara nafarraren eremu zabalean erabiltzen da *-it-* pluralgilea adizki ditransitiboetan; *ditiit* ‘dizkit’, *ditio* ‘dizkio’ edota *nitio* ‘nizkion’ bezalako adizkiak entzuten dira bertan. Nafarroako Arantz-Betelun, Larraun ibarreko mendebalean, Basaburu Txikiko mendebalean, Etxarri-Aranatzen eta Ergoienan, berriz, *-zki-* pluralgilea erabiltzen da. Bortzirietan eta Burundan ere *-zki-* erabiltzen da, baina ez adizki guztietan (Zuazo 2014: 118) –ikus baita Apalauza (2008: 91)–.

Erdialdeko euskalkiaren sortaldeko azpi-euskalkiari dagokionez, Larraungo ekialdea, Basaburu eta Imotzen lekukotzen da fenomenoa. Nafarroaz gain, Gipuzkoako ipar-ekialdean ere entzun daitezke era honetako adizkiak, nahiz eta azken urteotan desagertzen ari den. Gaur egun, Hondarribian bakarrik dago indarrean fenomenoa (Zuazo 2014: 54, 61). Hona hemen Sagarzazuk (2005: 76) Hondarribiko euskararen jasotako bi adibide:

(3a)	ekárri nitijón	‘ekarri nizkion’
(3b)	emán ttjót	‘eman dizkiot’

Sagarzazuk dioenez, Irunen ere lekukotzen da *-it-* pluralgilea adizki ditransitiboetan, baina *-zki-* morfema gailentzen ari da.

Datu-basearen emaitzak

Datu-basean ikus daitekeenez, egitura ditransitiboetan *-it-* pluralgilearen erabilera euskara nafarraren ezaugarria da bereziki, nahiz eta erdialdeko euskaran ere aurkitu dugun halakorik. Euskara nafarrari dagokionez, Arizkun (Baztan), Goizueta eta Mezkitzen (Erroibar) aurki ditzakegu *-it-* pluralgiledun adizki ditransitiboak. Erdialdeko euskaran, berriz, Etxalekun (Imotz). Horrez gain, Azpeitian (Gipuzkoan) ere gertatzen da fenomeno hau.

Aipamenak

Apalauza, Amaia. 2008. «Nafarroako ipar-mendebaleko euskara: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu». *FLV* 107. 63-104.

Sagarzazu, Txomin. 2005. *Hondarribiko eta Irungo euskara*. Irun: Alberdania

Zuazo, Koldo. 2013. *The dialects of Basque*. Reno: University of Nevada.

Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

i.6. Numero komunztadura alokutiboetan: *-zki*

(*v -it*)

Egilea: Ane Odria

Nola aipatu: Odria, Ane. (2022). Numero komunztadura alokutiboetan: *-zki* (*v -it*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.es/biv/?o=chapters&id=1&e=13&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

alokutiboak, numero komunztadura, pluralgileak

Deskribapena

Euskaraz alokutiboak argumentu absolutiboari dagokion *-it-* pluralgilea hartzen dute forma iragankorretan.

(1a)	Nik	liburuak	ekarri	ditiat/ditinat
------	-----	----------	--------	----------------

	ni.ERG	liburuak.ABS	ekar.PTCP	(3ABS).PL.edun.ALLO.M/F.1SG.ERG
(1b)	Jonek	liburuak	ekarri	ditik/ditin
	Jon.ERG	liburuak.ABS	ekar.PTCP	(3ABS).PL.edun.ALLO.M/F.3ERG

Hizkera batzuek, aldiz, *-zki-* pluralgilea darabilte, eta ez *-it-* (Zuazo 2014: 48).

(2a)	Nik	liburuak	ekarri	dizkiat/dizkinat
	ni.ERG	liburuak.aBS	ekar.PTCP	(3ABS).PL.edun.ALLO.M/F.1SG.ERG
(2b)	Jonek	liburuak	ekarri	dizkik/n
	Jon.ERG	liburuak.ABS	ekar.PTCP	(3ABS).pl.EDUN.ALLO.M/F.3ERG

Banaketa dialektala

Zuazok (2014: 48) dioenez, Gipuzkoako alderdi bateko berrikuntza da **edun* aditzaren hitanoan *-zki-* pluralgilea erabiltzea *-it-* orokorraren lekuan. Hona hemen zenbait adibide:

(3a)	dizkiat/dizkiñat	‘ditiat/ditiñat’
	(3ABS).PL.edun.ALLO.M/F.1SG.ERG	
(3b)	dizkik/dizkin	‘ditik/ditin’
	(3ABS).PL.edun.ALLO.M/F.3ERG	
(3c)	dizkiogu/dizkionagu	‘ditiagu/ditinagu’
	(3ABS).PL.edun.ALLO.M/F.1PL.ERG	

Datu-basearen emaitzak

Gipuzkoako eremu bateko berrikuntza izanik, erdialdeko euskalkietan aurkitzen da batez ere *-zki-* pluralgilea *-it-* pluralgilearen lekuan: Beizaman, Errenteria, Etxalekun (Imotz), Hernani, Irun eta Itsasondon. Oragarreko hizkeran ere (nafar-lapurtarra) lekukotzen da *-zki-* predikatu iragankorretan.

Aipamenak

Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

i.7. Numero komunztaduraren galera: *sagarrak jan du*

(v ditu)

Egilea: Ane Odria

Nola aipatu: Odria, Ane. (2022). Numero komunztaduraren galera: *sagarrak jan du (v ditu)*. In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.es/biv/?o=chapters&id=1&e=9&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

numero komunztadura, plural komunztaduraren galera, pluralgileak

Deskribapena

Euskal argumentuek numero komunztadura eragiten dute:

(1a)	Jonek	sagarra	jan	du
	Jon.ERG	sagarra.ABS	jan.PTCP	(3ABS).edun.3ERG
(1b)	Jonek	sagarrak	jan	ditu
	Jon.ERG	sagarra.PL.ABS	jan.PTCP	(3ABS).PL.edun.3ERG

Hizkera ereduak: hizkera batzuetan, 3. pertsonako argumentu absolutiboarekiko numero komunztadura galtzen da (Zuazo 2006: 86, 2014: 51, 2017: 62, 2018: 905-906).

(2)	Harek	porruak	gordiñik	jate(n)	seben
	haiek.ERG	porruak.PL.ABS	gordinik	jan.IPFV	(3ABS).edun.3ERG.PL

(Larrañaga
1998: 101)

Horrez gain, osagarriaren numero komunztadura egiten ez duten zenbait hizkeratan 1. eta 2. pertsona absolutiboaren numero komunztadura ere galtzen da (Arzelus 2016):

(3a)	Zuk	gu	asko	maite	gaizu
	zu.ERG	gu.ABS	asko	maite.PTCP	1ABS.edun.2SG.ERG
(3b)	Zuk	gu	asko	maite	gaituzu
	zu.ERG	gu.ABS	asko	maite.PTCP	1ABS.PL.edun.2SG.ERG

Banaketa dialektala

Arabako euskararen berrikuntza izan zen osagarri pluralarekin numero komunztadura ez egitea, eta gaur egun Arabarekin harreman estua eduki duten alderdietan ageri da fenomenoa, Goierrin, Urretxu eta Zumarragan eta Deba Ibarreko hegoaldean, Bergaran eta Antzuolan hasi eta Arabako muga bitartean (Zuazo 2014: 51). Zuazok dioenez, azken alderdi horretan dago gaur egun indarrean; Goierrin, Urretxun eta Zumarragan adineko hiztunen jardunean baino ez da jasotzen osagarriaren komunztadura galera –ikus baita Zuazo (2018: 905-906)–. Aramaiokoa da, Debagoieneko beste herri batzuekin batera osagarriaren numero komunztadura galera erakusten duen hizkeretako bat. Hona hemen Zuazok (2017: 62) Ormaetxearen (2006: 299-301) lanetik jasotako Aramaioko zenbait lekukotasun:

- (4a) Isenok etxat akordetan niri
'Izenak ez zait akordatzen niri'
- (4b) Berak paga'uskun danak
'Berak pagatu zigun denak'
- (4c) Eran daigun kopak
'Edan dezagun kopak'
- (4d) Nik enakixen orreik gausa gustiok
'Nik ez nekien gauza horiek guztiok'

Deba Ibarreko hegoaldeko hizkeren ezaugarritzat hartzen du Zuazok (2006: 86) osagarriaren komunztadura pluralaren galera. Hizkera hauetan datibodun predikatuetan (iragangaitz zein ditransitiboetan) gertatzen da bereziki komunztadura galera, nahiz eta beste zenbait testuingurutan ere gerta daitekeen. Arzelusek (2016: 9) dioenez, Oñatin eta Leintz bailaran sistematikoagoa da fenomenoa Bergaran eta Antzuolan baino, eta beraz, testuinguru sintaktiko gehiagotan ager daiteke osagarri plurala numero komunztadurarik gabe, besteak beste datiborik ageri ez den aditz iragankor analitikoetan absolutibodun argumentua 3. pertsonakoa denean, goiko (4c) eta (4d) adibideetan bezala. Era honetako egiturak Bergaran eta Antzuolan ere entzuten dira orainaldiko formetan, baina hizkera hauetan fenomenoa ez dago horren errotua. Badirudi, gainera, osagarriaren numero komunztadura galtzeko joera areagotu egiten dela subjektua bera ere pluralekoa denean. Halaxe dio Zuazok (2006: 86) Larrañagak (1998: 101) Antzuolan jasotako beheko adibideak aipatuz:

- (5a) Orduan bailabliak jote seben danak
'Orduan dantzan egitekoak jotzen zuten [doinu] denak'
- (5b) Arek porruak gordiñik jate seben
'Haiek porruak gordinik jaten zuten'
- (5c) Batzuk ebaltze seben surixak beste batzuk ebaltze seben beltzak
'Batzuek erabiltzen zuten zuriak, beste batzuek erabiltzen zuten beltzak'

Aditz sintetikoez gain, aditz trinko edo analitikoaren artean antzeko datuak bildu ditu Arzelusek (2016:

5-6) Antzuolan ez ezik baita Bergaran ere. Hizkera hauetan, euskara batuan -z- pluralgilea daramaten aditz sintetikoek ez dute plural komunztadurarik egiten datibo komunztadura daramatenean: *dakarkixot, dabilkixot, darixo*. Adizki sintetikoetan, gainera, datiborik gabeko predikatu iragankorretan ere ageri da Bergaran eta Antzuolan osagarriaren plural komunztadura galera: *dakart, daroiat, dakat* (nahiz eta *dauzkat* ere badagoen). Hizkera hauetan predikatu iragankorretan normalean numero komunztadura islatzen da adizkian, baina orainaldian gazte jendearen artean pluralgile gabekoak ere entzun daitezke. Esanak esan, Deba Ibarreko hegoaldean osagarriaren numero komunztadura galera datibo argumentuarekin lotuta dagoela azpimarratzen du Arzellusek (2016): datibo komunztaduradun adizkietan beti gertatzen da komunztadura galera; datiborik gabeko iragankorretan, ostera, salbuespenak ugariagoak dira.

Horrez gain, Debagoieneko zenbait hizkeratan, Aramaion eta Legution osagarriaren numero komunztadura galera ez da 3. pertsonako absolutiboekin bakarrik gertatzen, 1. eta 2. pertsonako osagarri pluralekin ere agertzen dira *-it-* numero komunztadurarik gabeko adizkiak: *saut* ‘zaitut’, *sauet* ‘zaituztet’, *gau* ‘gaitu’, *gaue* ‘gaituzte’... (Zuazo 2006: 86, 2017: 62). Hona hemen Zuazok (2017: 62) Ormaetxearen (2006: 295) lanetik jasotako beste adibide bat:

(6) Su fuen sas aurretik, nik jarraituko saut eta
‘Zu joan zaitetz aurretik, nik jarraituko zaitut eta’

Gaur egun Arabarekin muga egiten duen Debagoiengan eta Aramaion erabiltzen dira halakoak, baina garai bateko Arabako euskararen ere eraili izan da, Lazarraga arabarraren izkribuetan, esaterako, *saut* ‘zaitut’ eta *zau* ‘zaitu’ bezalakoak agertzen dira (Zuazo 2017: 62) –ikus baita Zuazo (2018: 906)–.

Bestalde, Goierriren ere agertzen da plural komunztadura galera, nahiz eta Debagoiengan ez bezala, gaur egun adinekoen jardunera mugatzen den bereziki. Hona hemen Zuazok (2014: 51) Goierriren jasotako zenbait adibideak:

(7a) Saarrak ekartzen tziun
‘Sagarrak ekartzen zigun’

(7b) Saarrak gustatzen zat
‘Sagarrak gusatazen zait’

Jatorriz Arabako euskararen ezaugarria izanik, espero izatekoa denez Goierri mendebalean agertzen da fenomeno batik bat, Zegama inguruan, Mutiloa, Gabiria edota Legazpin. Beterrirantz hurbildu ahala, gutxiago agertzen da (Itsasondon edota Amezketan, esaterako) (Hurtado 2001: 103; Agirrebeña, Alberdi, Mendiguren eta Sarasua 2007: 48). Beasain tartean egonik, bi joerak jaso dituzte Agirrebeñak eta bestek (2007: 48):

(8) Oso emakuma atsegiñe zan; koziñan ta josten ta prakak eitten
ziun guri ta... dana eitten zona zan

- (9) Ta ordun etorri huan hemen lanik ezak eta lehenao honek esan
dittun histori horik danak...

Goierriko hego-ekialdean kokatu arren, Zaldibian ere jasotzen da fenomenoak, beti ere datibodun predikatuetan, iragangaitz zein ditransitiboetan (Etxabe eta Garmendia 2003: 73).

- (10a) Eaman giñun geen erantzunek (guardi zibilei) ‘genizkien’
(10b) Guri eamaten tziun (bokadillok) ‘zizkiguten’
(10c) An ixkututzen tzitzaiun askotan mótillek ‘zitzaizkigun’
(10d) Etzizaten nei etxeko lanak gustatzen ‘zitzaizkidan’
(10e) Asi zaio umei ortzak atatzen ‘zaizkio’

Hurtadok (2001: 103) azaltzen duenez, berrikuntza hau aspalditik dago Goierri aldean, bertako literatura-tradizioan sarri agertzen baitira osagarriaren komunztadura pluralik gabeko datibodun adizkiak. Gaur egun ere, Debagoienean ez bezala, datibodun adizkiekin baino ez da osagarriaren numero komunztadura galtzen. Aditz iragankorrekin eta trinkoekin pluraleko markak ageri dira. Hona hemen Hurtadok (2001: 103) jasotako osagarriaren numero komunztadura galeraren zenbait adibide predikatu iragangaitz datibodunetan (11) eta predikatu ditransitiboetan (12):

- (11a) Bueno festak gustau izandu zitzaaten nei...
(11b) Donostitik izebak-eta etortze zitzaigun
(11c) Oaindio lorak etzaio
irikitzen

- (12a) Mandarina batzuk ematerítzien
(12b) Grabatutako [kontu] oitakon batzuk konta ‘iuzu ordun

Azkenik, aipatzekoa da Arabako euskararekin loturarik izan ez arren, Pasaian ere agertzen dela numero komunztadura galera osagarria plurala denean, Donibanen batez ere (Agirretxe 1998: 127). Predikatu ditransitiboetan gertatzen da hau batez ere, baina baita iragankorretan ere:

- (13a) Karraxiyak nabaitzen senun
(13b) Joxek antxuak eman disu

Beste jatorri batetik eratorria dirudi, beraz, Pasaian agertzen den fenomenoak, numero komunztadura galera ez baita datibodun argumentu baten araberakoa.janjan

Datu-basearen emaitzak

Datu-basean Bergaran bakarrik lekukotzen da (2) adibideko egitura.

Datu-basean Aramaion bakarrik lekukotzen dira *gaizu* (3a) bezalako aditz formak. Jasotako erantzunak bat datoz, beraz, Zuazok (2006: 86, 2017: 62, 2018: 906) jasotako datuekin.

Aipamenak

Agirrebeña, Aintzane, Itziar Alberdi, Xabier Mendiguren and Asier Sarasua. 2007. *Beasaingo euskara. Herrizko hizkeraren azterketa eta ahozko ondarearen bilketa*. Beasain: Beasaingo Udala

Etxabe, Karmele and Larraitz Garmendia. 2003. *Zaldibiako euskara*. Zaldibia: Zaldibiako Udala.

Hurtado, Irene. 2001. *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*. Lazkao: IX. Gerriko Ikerlan Sariketa.

Larrañaga, Jone. 1998. *Antzuolako hizkera*. Antzuola: Antzuolako Udala.

Ormaetxea, Jose Luis [Txipi]. 2006. *Aramaioko euskara (azterketa dialektologikoa)*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

Zuazo, Koldo. 2018. «Deba Ibarreko euskara». In Joseba Lakarra and Blanc Urgell (eds.) *Studia Philologica et Diachronica in honorem Joakin Gorrotxategi. Vasconica et Aquitanica*. ASJU LII 1-2. 899-908.

Zuazo, Koldo. 2017. *Mendebaleko euskara*. Donostia: Elkar.

i.8. Datibo komunztaduraren galera: *gizonari liburua eman du (v dio)*

Egilea: Jürgen Etxeberria

Nola aipatu: Etxeberria, Jürgen. (2022). Datibo komunztaduraren galera: *gizonari liburua eman du (v dio)*. In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=8&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

datibo komunztaduraren galera, datiboak, kasua, komunztadura/klitikoak, postposizioak

Deskribapena

Eredu orokorra: Euskaraz, perpauseko argumentu guztiek komunztadura eragiten dute aditz jokatuan. Datibo argumentuak ageri direnean perpausean, datibo komunztadura adierazten dute adizkian. Honen erakusle da datibo argumentua topikalizatuta duen (1) perpausa.

(1)	Gizonari	liburua	eman	dio	emakumeak
	gizona.DAT	liburua.ABS	eman.PTCP	(3ABS).edun.APPL. 3DAT.3ERG	emakumea.ERG

Honako (1) perpausean ikus daitekeenez, singularreko pertsonako datibo komunztadura ageri da *d-i-o-∅* adizkian, eta datibo komunztadura erakustea da euskaraz ohikoena den eredu.

Hizkera eredu 1: Iparraldeko eta Nafarroako mugako zenbait hizkeratan datibo argumentuak datibo komunztadura gal dezake. Hala izanez gero, aditz jokatuak ergatibo-absolutibo komunztadura ala absolutibo komunztadura adierazten du soilik:

(2)	Gizonari	liburua	eman	du	emakumeak
	gizona.DAT	liburua.ABS	eman.PTCP	(3ABS).edun.3ERG	emakumea.ERG

Perpaus honetan (2), *d-u-∅* adizkiak ez du datibo komunztadurarik erakusten.

Ondoren zehazten diren testuinguruetan datibo komunztadura adieraztea hautazkoa da: aspektu datiboetan (*Ni ez **naiz** ausartatzen lan horri*, Dv Lab 339); postposizio gisako datiboetan (*Gauza horri ohartu **direnak***, Dv Lab 80) eta *begiratu* gisako aditzetako datibo-osagarri bitxietan (*Begiraturen **naiz** bethi zure Ebanjelioko hitzei*, Dv LEd 8) (Fernandez eta Landa 2009). Dena den, datu-baseko erantzunetan ez da testuinguru hauetako bakoitzaren inguruko zehaztapenik jaso.

Banaketa dialektala

Aipatutako hizkera ereduak jarraian zehazten den banaketa dialektalean lekukotu izan dira:

Eredu orokorra (datibo argumentuak datibo komunztadura aditz-inflexioan): mendebaleko eta erdialdeko hizkera guztietan datibo komunztadura adierazten da aditz-inflexioan (Zuazo 2014: 215).

Hizkera eredu 1 (datibo komunztadura galera aditz-inflexioan): datibo komunztaduraren galera Lapurdiko kostaldean lekukotzen da (Pikabea 1993) bai eta ipar-ekialdeko beste zenbait hizkeratan ere, hala nola nafar-lapurterako eremu zabal batean eta Zuberoan (Etxepare and Oyharçabal 2008).

Datu-basearen emaitzak

Atal honetan datu-basean jasotako erantzunak jasotzen dira. Erantzun hauek dialektologia lanetako sailkapenekin alderatzen dira, bi kasuetan, hizkera ereduaren hedadura bat datorren egiaztatzeko.

Hizkera eredu 1: aurreikusi bezala, eredu honen berri eman dute Lapurdiko kostaldean (Ziburun), Lapurdiko erdialdean (Larresoron) eta baita Zuberoan (Urđiñarben) ere. Baxenabarre iparraldeko (Oragarreko) berriemaileak ordea, aditz-inflexioan argumentu datiboarekiko komunztadura egiten dela adierazi du. Aurreikusitakoaz gain, Nafarroa Garaiko mendialdeko (Baztango Arizkun, Erroibarko Mezkitzen eta Aezkoako Orbaizetan) berriemaileek ere, euren hizkeretan datibo komunztaduraren galera lekukotzen dela adierazi dute.

Laburbilduz, euskaraz hedaturaz nagusi den ereduaren datibo komunztadura adierazten da aditz inflexioan. Eredu hau Hego Euskal Herri gehienara hedatzen da, Nafarroako Pirinioetako mendialdea da salbuespena (Baztan, Erroibar eta Aezkoa). Baxenabarreko iparraldea ere datibo komunztadura galeraren eraginpeko eremutik kanpo dago. Bien bitartean, Lapurdiko kostaldetik eta Zuberoara arte hedatzen den eremu zabalean, aditz-inflexioan ez da datibo komunztadurarik adierazten.

Aipamenak

Ettxepare, Ricardo and Beñat Oyharçabal. 2008. «Bi datibo egitura ifar-ekialdeko zenbait hizkeratan». *Lapurđum*, 13. 145-158.

Fernández, Beatriz and Josu Landa. 2009. «Datibo komunztadura beti zaindu, inoiz zaindu ez eta batzuetan baino zaintzen ez denean. Hiru ahoko aldagaia, datu iturri bi, eta erreminta bat: Corsintax». *Lapurđum*, 13. 159-181.

Pikabea, Josu. 1993. *Lapurterra idatzia (XVII-XIX). Bilakaera baten urratsak*. Donostia: UPV/ EHU and Kutxa Fundazioa.

Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

i.9. Osagarrien markapen bereizgarria: *ikusi nizun* (v *ikusi zintudan*)

Egilea: Endika Legarra

Nola aipatu: Legarra, Endika. (2022). Osagarrien markapen bereizgarria: *ikusi nizun* (v *ikusi zintudan*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=2&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

biziduntasuna, datiboak, kasua, komunztadura/klitikoak, osagarrien markapen bereizgarria

Deskribapena

Euskaraz, eredu orokorraren arabera (1), perpauk iragankorretan, subjektuari eta osagarriari ergatibo eta absolutibo kasuak eta komuntadura markak egozten zaizkie, hurrenez hurren. Osagarri zuzena absolutiboz markatzen da, alegia.

(1a)	Nik	zu	ikus	zaitut
	ni.ERG	zu.ABS	ikus.PTCP	2ABS.edun.1SG.ERG
(1b)	Nik	zu	ikus	zintudan
	ni.ERG	zu.ABS	ikus.PTCP	2ABS.edun.1SG.ERG.PST

Zenbait hizkeratan, aldiz, osagarria absolutiboz markatu beharrean, datiboz markatzen da bai kasuari bai komuntadurari dagokionez. Fenomeno honi *osagarrien markapen bereizgarria* (OMB) (ingelesez *differential object marking*) deritza, eta baliokideak ditu munduko hainbat hizkuntzatan, besteak beste gaztelaniaz edo hindi-urdueraz (Fernández eta Rezac 2016). Euskaraz bestelako deiturak ere eman zaizkio, hala nola, *euskal leismoa* (Rezac 2006) edo *datibo osagarri bitxiak* (Fernández eta Rezac 2010).

Fenomeno honek, ordea, berezko mugak ditu, hots, ez da edozein perpauk iragankorretan erabiltzen. Izan ere, beste zenbait hizkuntzatan bezala, euskaraz ere osagarri jakin batzuk baino ez ditu onartzen, biziduntasuna, pertsona eta zehaztasuna kontuan hartuta.

Biziduntasanari dagokionez, biziduntasanaren hierarkian goren dauden osagarriek baino ezin dute OMB jarraitu, hots, gizakiek. Hau derrigorra edo hautazkoa izan daiteke hizkeraren arabera. Lekeition eta Elgoibarren, esaterako, hautazkoa da.

Pertsonak ere eragina du. Oro har, osagarriaren datibo markatzea ohikoagoa da 1. eta 2. pertsonetan, 3.ean baino. Dena den, hemen ere aldakortasuna topatzen dugu hizkeratik hizkerara. Lekeition hautazkoa da pertsona edozein dela ere. Arratian, aldiz, 1. eta 2. pertsonetan beharrezkoa da; 3.ean, aldiz, ez da lekukotzen.

Azkenik, espezifikotasuna edo zehaztasuna ere hartu behar da kontuan. OMB gehiago lekukotzen da osagarri zehaztuekin zehaztugabeekin baino. Ez da ohikoa *asko* bezalako determinatzaileekin edo *inor* bezalako izenordainekin, ezta elkarkari eta bihurkariekin ere (Mounole 2012).

Horretaz gain, literaturan lekukotzen denez, aditz-denborak, ere eragina dauka ezaugarriaren banaketan. Hori da, hain zuzen ere, hizkera eredu (2) eta azpi-hizkera eredu (3) bereizten dituen. Hizkera-ereduan lehenaldian osagarria datiboz markatzen da. Azpi-hizkera eredu orainaldian ere bai. Denboraren araberrako bereizketa hau ez da batere ohikoa beste hizkuntza batzuetan.

(2)	Nik	zuri	ikus	nizun
	ni.ERG	zu.DAT	ikus.PTCP	1SG.ERG.edun.APPL.2DAT.PST

(3)	Nik	zuri	ikusi	dizut
	ni.ERG	zu.DAT	ikus.PTCP	(3ABS).edun.APPL.2DAT.1SG.ERG

Banaketa dialektala

OMBren banaketa dialektala ez da zurruna, osagarria datiboz markatzen duten hizkeren artean absolutiboz markatzen dutenak ere tartekatzen baitira (adibidez, Otxandio edo Beizama). Halaber, lehenago ere esan dugun bezala, hizkera batzuetan beste batzuetan baino esparru handiagoa hartzen du. Edonola ere, esan daiteke, ekialdean salbu, Hego Euskal Herri osoan lekukotzen den fenomeno bati buruz ari garela.

Datu-basearen emaitzak

Hizkera batzuetan lehenaldian baino ez da lekukotzen, Orbaizetan besteak beste. Dena dela, lekukotzen den hizkera gehienetan orainaldian eta lehenaldian lekukotzen da. Maiztasuna, ordea, ez da bera (Odria 2017). Batzuetan, esaterako Lekeition, bietan neurri berean agertzen da. Beste batzuetan, aldiz, lehenaldian nahitaezkoa baina orainaldian hautazkoa da, adibidez Araitx Betelun. Hortaz, oro har, ohikoagoa da lehenaldian orainaldian baino.

Aipamenak

- Fernández, Beatriz and Milan Rezac. 2010. «Datibo osagarri bitxiak eta Datiboaren Lekualdatzea: ari nai diyot eta kanta egin nazu bidegurutzean». In Beatriz Fernandez, Pablo Albizu and Ricardo Etxepare (eds.), *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai. Supplements of the International Journal of Basque Linguistics and Philology (ASJU), LII*. UPV/EHU. 113-149.
- Fernández, Beatriz and Milan Rezac. 2016. «Differential object marking in Basque varieties». In Beatriz Fernández and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *Microparameters in the grammar of Basque*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 93-137.
- Mounole, Céline. 2012. «Evolution of the transitive verbs in Basque and apparition of datively marked patients». In Gilles Authier and Katharina Haude (eds.), *Ergativity and Voice*. Berlin / New York: Mouton de Gruyter. 355-379.
- Odria, Ane. 2017. *Differential Object Marking and datives in Basque syntax*. Ph.D. diss., UPV/EHU.
- Rezac, Milan. 2006. «Agreement displacement in Basque». manuscript, UPV/EHU. [Available in the Internet: <http://www.umr7023.cnrs.fr/spip.php?article675>]

i.10. Datibo osagarriak aditz iragankorretan: *itxarongo dizut, diot (v itxarongo zaitut, dut)*

Egilea: Kristina Bilbao

Nola aipatu: Bilbao, Kristina. (2022). Datibo osagarriak aditz iragankorretan: *itxarongo dizut, diot (v itxarongo zaitut, dut)*. In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=3&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

absolutibo/datibo alternantzia, datiboak, inergatibo datibodunak, kasua, komuntzadura/klitikoak

Deskribapena

Eredu orokorrean, aditz iragankorretako osagarri zuzenak absolutibo kasuarekin markatzen dira eta absolutibo komuntzadura erakusten dute aditz jokatuan.

Zenbait hizkera eredutan, aldiz, aditz iragankor batzuen osagarriak, –bizidunak (1a) nahiz bizigabeak (1b)–, datibo kasuarekin markatzen dira eta datibo komuntzadura erakusten dute aditz jokatuan.

(1a)	(Zuri)	itxaron	dizute
	zu.DAT	itxaron.PTCP	(3ABS).edun.APPL.2DAT.3PL.ERG
(1b)	Trenari	itxaron	diote
	trena.DAT	itxaron.PTCP	(3ABS).edun.APPL.3SG.DAT.3PL.ERG

Beraz, aditz batzuen osagarriek absolutibo/datibo alternantzia erakusten dute. Kasu batzuetan muga dialektalak ezartzen du absolutibo eta datiboaren arteko hautua. Hala denean, osagarriak absolutibo kasu eta komuntzadura erakusteko joera du ipar-ekialdeko hizkeretan, osagarri kanonikoen modura; hego-mendebaleko hizkeretan, aldiz, osagarria datibo kasuaz markatzeko joera dago.

Dena den, badirudi banaketa dialektala ez dela absolutibo/datibo hautaketan eragiten duen faktore bakarra. Izan ere, hizkera bakoitzean desberdinak izan daitezke osagarria datiboz markatzeko aukerak, osagarriaren biziduntasunaren eta erreferentzialtasunaren arabera (Mounole 2012), baita aditzak hartzen duen adieraren arabera ere (Etxepare 2003; Fernández eta Ortiz de Urbina 2010, 2012).

Biziduntasunari dagokionez, ohikoa da hurrengo banaketa aurkitzea: osagarri bizigabeak absolutiboz markatzen dira eta bizidunak, berriz, datiboz (Fernández eta Ortiz de Urbina 2012). Adibidez, OEHK honako banaketa aipatzen du *itxaron* aditzarekin, adibidez: osagarri bizidunak datiboz markatu ohi dira (1a); bizigabeak, aldiz, absolutibo zein datiboz (1b) ageri daitezke.

Alternantzia honen adibide dugu *itxaron* aditza (1), baita *deitu*, *entzun*, *eskertu*, *lagundu* eta *segitu* ere, besteren artean (Fernández eta Ortiz de Urbina 2010). Aditz hauek iragankorrak dira, bi argumentu baitituzte: subjektua eta osagarria. Ohiko egitura iragankorretan bezalaxe, subjektuak ergatibo kasu eta komunztadura ageri du; nahiz eta (1)eko adibideetan subjektua isilpean egon, ergatibo komunztadura ageri da aditz laguntzailean. Osagarriak, berriz, absolutibo edo datibo kasu eta komunztadura erakutsi dezake, goian aipatutako faktoreen arabera. Osagarria datiboz markatzen den kasuetan, subjektu ergatibo bat eta osagarri datibo bat ageri dira, (1)ean bezala. Horregatik, *inergatibo datibodunak* esaten zaie (Fernández eta Ortiz de Urbina 2010); ingelesez, *bivalent unergatives* deitura erabili izan da (Fernández eta Ortiz de Urbina 2012).

Bi argumentu eduki arren, inergatibo datibodunek aditz laguntzaile ditransitiboa dute, hots, ergatibo, absolutibo eta datibo komunztadura dituen (Etxepare 2003). Ergatiboa, ohiko egitura iragankor eta ditransitiboetan bezala, subjektuari dagokio; datiboa, aipatu bezala, inergatibo datibodunetan osagarriak erakusten duen komunztadura da. Komunztadura absolutiboa, ostera, ez dagokio inolako ageriko argumenturi, aditza iragankorra baita, hots, bi argumentu baino ez dituen. Auzi honetara “Eztabaida” atalean itzuliko gara.

Banaketa dialektala

Absolutibo/datibo alternantziadun aditzetan, osagarria absolutiboz markatzeko joera dago Iparraldean, baita batzuetan Nafarroa Garaian ere; mendebalean, berriz, datiboaz markatu ohi dira aditz hauen osagarriak (Fernández eta Ortiz de Urbina 2010).

Datu-basearen emaitzak

Datu-basean inergatibo datibodunetz galdetu dugu: batetik, osagarri datibo biziduna duten egiturez (1a); bestetik, osagarri datibo bizigabea dutenez (1b). Hizkera gutxi batzuk gorabehera, datiboz markatutako osagarriek banaketa antzekoa erakutsi dute, bai bizidunek bai bizigabeek. Oro har, datiboz markatutako osagarriak hego-mendebaleko hizkeretan lekukotu dira; absolutiboz markatutakoak, aldiz, ipar-ekialdean, “Banaketa dialektala” atalean deskribatutakoarekin bat eginez.

Hala ere, goian deskribatutako banaketa dialektalarekin alderatuz gero, badirudi datu-basearen emaitzek datiboaren hedadura zabalagoa erakusten dutela. Hegoaldeko hizkera guztietan lekukotu da osagarri datiboa, baina baita Nafarroa Garaian ere, eta are Iparraldeko Oragarreko aldaeran ere. Guzti hauetan, (1)eko adibideak ontzat eman dira, osagarriaren biziduntasuna gorabehera. Aldiz, osagarri bizidunetan absolutiboa erakusten duten bi hizkera bakarrak Iparraldeko aldaerak dira (Ziburu eta Larresoro), banaketa dialektalarekin bat eginez.

Osagarri bizigabeekin (1b) banaketa antzekoa den arren, beste bi hizkeretan ageri zaigu absolutiboz

markatutako osagarrien erabilera: Baztan eta Lekeitio. Beraz, bi hizkera hauek literaturan esan izan dena jarraitzen dute biziduntasunari dagokionez: bizidunekin datiboa hautatzen da, bizigabeekin, aldiz, absolutiboa. Hortaz, Larresoro eta Ziburun osagarri guztiak absolutiboz markatzen diren bitartean, Baztanen eta Lekeitioen absolutibo/datibo alternantzia hizkera beraren baitan ageri zaigu, biziduntasuna zein den. Baztango hizkeraren kasuan, ekialdeko hizkera izanik eta Iparraldeko hizkeretatik hurbil egonik, ez da harritzekoa absolutiboz markatutako osagarriak agertzea. Lekeitioari dagokionez, datu-baseko emaitzek bat egiten dute Hualde, Elordieta eta Elordietak (1994) deskribatutakoarekin: hizkera honetan hirugarren pertsonako osagarri bizigabeak absolutiboz soilik marka daitezke, eta ez datiboz. Beraz, Lekeitiokoa eta Baztanekoa bezalako hizkeretan, badirudi biziduntasuna murriztapena dela osagarriari datibo kasua ezartzerakoan.

Eztabaida teorikoa

“Deskribapena” atalean esan bezala, inergatibo datibodunetan aditz laguntzaileak hiru komunztadura erakusten ditu, ergatiboa, absolutiboa eta datiboa, argumentu bi baino ez izan arren. Hala, absolutibo komunztadura ageri da aditzean, nahiz eta absolutiboz markatutako argumenturik ez egon agerian. Aditz laguntzailearen aldetik, beraz, inergatibo datibodunak ditransitiboaren forma berekoak dira, eta halakotzat hartu izan dira euskal gramatiketan, ditransitiboek bi osagarri eduki arren, inergatibo datibodunek ez bezala (Fernández eta Ortiz de Urbina 2010).

Fernández eta Ortiz de Urbina (2010) iradokitzen dute aditz hauetako askok osagarri implizitu bat izan dezaketela, hots, ezkutuko gaia. Adibidez, *barkatu*, *erregutu* edo *obeditu* aditzak mota horretakoak lirateke. Hala, ageriko osagarriaren datibo markaketa azalduko litzateke, ageriko osagarria zehar osagarria izango litzatekeelako, hau da, helburu argumentu bat, eta zehar osagarri prototipikoen kasu bera jasoko lukeelako, datiboa alegia.

Badirudi, gainera, hipotesi honen aldeko argudio diakronikoak daudela. Mounolek (2012) azaltzen duenez, aditz hauetako batzuek euren lehen lekukotasun historikoetatik ergatiboz markatutako argumentu bat, datiboz markatutako beste bat eta aditz laguntzaile ditransitiboa erakusten dute. Kasu batzuetan, markaketa ezohiko hau azalpen historikoek argi dezakete. Esaterako, (1)eko adibideetan daukagun *itxaron* aditz elkartua izan bide zen aspaldi, izena + aditza (*hitz+*edun* > *itxaron*) egiturakoa, hain zuzen. Beraz, gaur egun agerian inolako gai argumenturik eduki ez arren, jatorrian gaia izan zezakeen, eta horrek ageriko argumentua helburua delako hipotesiaren alde egiten du.

Dena den, ez dirudi horren argi dagoenik inergatibo datibodun guztietan helburu argumentu bat dagoela. Hain zuzen ere, aditz batzuen kasuan ez dirudi osagarri impliziturik dagoenik, eta ondorioz, ezin baieztaatu daiteke ageriko osagarri datiboa helburua denik (Fernández eta Ortiz de Urbina 2010). Horien artean daude, esaterako, *begiratu*, *deitu*, *esetsi*, *itxaron* eta *jarraiki*, besteak beste.

Analisi sintaktikoari dagokionez, Fernández eta Ortiz de Urbina (2012) proposatu dute behe aplikatibo burua dela euskarazko inergatibo datibodunetan datibo kasua ezartzen duena. Halaber, Pinedak (2015) katalanezko eta beste hizkuntza erromantze batzuetako datibo/akusatibo alternantzia aztertu du eta, euskara konparagai izanik, ildo beretik doan analisisa proposatu du.

Azkenik, biziduntasunari dagokionez, ohikoa da hurrengo banaketa aurkitzea: osagarri bizigabeak absolutiboz markatzen dira eta bizidunak, berriz, datiboz (Fernández eta Ortiz de Urbina 2012).

Autore hauen (2012: 11) arabera, *Osagarriaren Markapen Bereizgarriak* (OMB, ikus 9. kapitulua) duen estigmatizazioak –gatzelaniarekiko ukipenari lotu izan zaiolako– eragina izan dezake auzi honetan: hiperezketaren ondorioz, OMBren antzeko egitura duten inergatibo datibodunak ekidin dira beharbada, absolutiboz markatutako osagarrien mesedetan. Ondorioz, datiboz markatutako osagarriak baztertu egin izan dira euskal gramatika tradizioaletan, bereziki euskara batuaren agerpenetik hona.

Aipamenak

- Etxepare, Ricardo. 2003. «Valency and argument structure in the Basque Verb». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 363-425.
- Fernández, Beatriz and Jon Ortiz de Urbina. 2012. «Dative first complements in Basque». In Ernestina Carrilho and Beatriz Fernández (eds.), *Syntactic microvariation in Westmost European Languages. Journal of Portuguese Linguistics (Special Issue), 11-1*. Lisboa: Edições Colibri-Universidade de Lisboa. 83-98.
- Fernández, Beatriz and Jon Ortiz de Urbina. 2010. *Datiboa hiztegia*. Bilbo: UPV/EHU.
- Hualde, José Ignacio, Gorka Elordieta and Arantazu Elordieta. 1994. *The Basque dialect of Lekeitio*. Bilbo and Donostia: PV/EHU and Gipuzkoako Foru Aldundia. Supplements of the *International Journal of Basque Philology ASJU* 34.
- Mitxelena, Koldo and Ibon Sarasola. 1989-2005. *Diccionario General Vasco / Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Mounole, Céline. 2012. «Evolution of the transitive verbs in Basque and apparition of datively marked patients». In Gilles Authier and Katharina Haude (eds.), *Ergativity and Voice*. Berlin / New York: Mouton de Gruyter. 355-379.
- Pineda, Anna. 2015. *Les frontières de la (in)transitivité. Étude des applicatifs en langues româniques i basc*. Ph.D. Diss., UAB.

i.11. Datiboaren lekualdatzea: *eman nauzu* (v *eman didazu*)

Egilea: Jürgen Etxeberria

Nola aipatu: Etxeberria, Jürgen. (2022). Datiboaren lekualdatzea: *eman nauzu* (v *eman didazu*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=7&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

datiboak, datiboaren lekualdatzea, kasua, komuntadura/klitikoak

Deskribapena

Eredu orokorra: Euskaraz nagusi den ereduan, perpauseko argumentuetako bakoitzak komunztadura adierazten du aditz jokatuan. Hau berau gertatzen da datibo argumentuak ageri direnean era, argumentu hauek komunztadura eragiten baitute aditz-inflexioan, (1) adibidean ikus daitekeen moduan:

(1)	Zuk	niri	liburua	eman	didazu
	zu.ERG	ni.DAT	liburua.ABS	eman.PTCP	(3ABS).(edun).APPL.1DAT.2ERG

Adibide honetan (1) datibo komunztadura adierazten da aditz-inflexioan *d-i-da-zu*(3.SG ABS, **edun*, 1.SG DAT, 2.SG ERG) eta hau da euskaraz ohikoena den eredu.

Hizkera eredu 1: Elkarren ondoan ez dauden hizkera batzuetan ordea, 1. eta 2. pertsonako datibo argumentuek absolutibo komunztadura eragiten dute aditz-inflexioan; *Datiboaren Lekualdatzea* deritzona, hain zuen (Fernández 2001).

(2)	Zuk	niri	liburua	eman	nauzu
	zu.ERG	ni.DAT	liburua.ABS	eman.PTCP	1SG.ABS.edun.2ERG

Datiboaren lekualdatze hau Kostaldeko Solezismoa (Lafitte 1944 [1979]) izenez ere ezagutzen da, eta (2) adibidean ikus daitekeen moduan, aditz-inflexio ditransitiboaren lekuan, ergatibo-absolutibo komunztaduradun aditz-inflexioa ageri da: *na-u-zu* (1SG.ABS., **edun*, 2.SG ERG).

Banaketa dialektala

Aipatutako hizkera ereduak jarraian zehazten den banaketa dialektalean lekukotzen dira:

Eredu orokorra (1. eta 2. pertsonako datibo argumentuak datibo komunztadura aditz-inflexioan): honako hau da hizkera ia guztietan lekukotzen den aldaera (Rezac eta Fernández 2013:12).

Hizkera eredu 1 (Datiboaren Lekualdatzea): gertakari hau kostaldeko hizkeretan lekukotu da batez ere, Lekeition (mendebaleko sortaldean), Hondarribian (erdialdeko eta Nafarroako hizkeren muga) eta Ziburun (Lapurdikoa kostaldean). Hauen inguruko hizkeretan ere jaso da datiboaren lekualdatzea, besteak beste, Oiartzunen (Gipuzkoan) eta Ainhoan (Lapurdin). Debagoienako Oñatin iraganeko perpausetan baino ez da ageri datiboaren lekualdatzea (Rezac eta Fernández 2013:12).

Datu-basearen emaitzak

Atal honetan, datu-basean emandako erantzunak jaso eta erantzun hauek dialektologia lanetako sailkapenekin alderatzen dira, honela, hizkera ereduren baten hedadurak aldaketarik izan duen egiaztatzeko.

Hizkera eredia 1 (datiboaren lekualdatzea): Lekeitioko (mendebaleko sortaldea) eta Ziburuko (Lapurdikoko kostaldea) berriemaileek euren hizkeretan gertakari hau lekukotzen dela aipatu dute. Hondarribi edo Astigarragako berriemaileek egon ez bada ere, inguruko hizkeretako (Irungo, Errenteriako eta Hernaniko) berriemaile guztiek gertakari honen berri eman dute, datiboaren lekualdatzeak hedadura zabala duela adieraziz. Espero zenaren aurka, Otxandioko (mendebaleko hegoaldea) hiztunak ere bere hizkeran datibo lekualdatzea ohikoa dela adierazi du.

Eztabaida teorikoa

Esandakoa laburtuz, kostaldeko hizkera batzuetan 1. eta 2. pertsonako datibo argumentuek absolutibo komunztadura adierazten dute aditz jokatuan. Gauzak honela, perpaus ditransitiboetan, aditz jokatuak perpausoko subjektuarekiko eta zehar osagarriarekiko komunztadura adierazten du, ez ordea, osagarri zuzenarekikoa. Gertakari hau kostaldeko bi eremu nagusitan lekukotzen da, mendebaleko sortaldean (Lekeition) eta Erdialdeko euskalkiaren mugatik hasi eta nafar-lapurteraren kostaldeko eremura bitartean (Hondarribia, Irun, Ainhoa, Ziburu). Gainera, Gipuzkoan, Beterri aldera hedatzen ari dela dirudi, Oiartzun eta Errenterian ez ezik, Hernanin ere honen berri eman baitute.

Kostaldetik kanpo, barnealdean ere lekukotu da datiboaren lekualdatzea, hori adierazi baitu Otxandioko (Bizkaiko hegoaldea) berriemaileak. Beraz, gertakari bera izanagatik ere, badirudi tokian tokiko aldaera hauek ez dutela elkarren arteko loturarik eta hortaz, datibozko argumentuaren komunztadura berrinterpretatzeko berrikuntza beregainak lirateke.

Aipamenak

- Fernández, Beatriz. 2001. «On Split Ergativity: Evidence from Basque». In Vivian Lin, Cornelia Krause, Benjamin Bruening and Karlos Arregi (eds.), *Papers on Morphology and Syntax. Cycle Two. MITWPL 34*. Cambridge (Mass.): MIT Press. 177-190.
- Lafitte, Pierre. 1944. *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Baiona: Librairie Le Livre. [Reprinted in 1979. Donostia: Elkar]
- Rezac, Milan and Beatriz Fernández. 2013. «Dative Displacement in Basque». In In Beatriz Fernández and Ricardo Etxepare (eds.), *Variation in datives: a microcomparative perspective*. New York: Oxford University Press. 256-282.

i.12. Arazi inakusatiboaren datibo markatzea: *etorrarazi dizute* (v *etorrarazi zaituzte*)

Egilea: Kristina Bilbao

Nola aipatu: Bilbao, Kristina. (2022). Arazi inakusatiboaren datibo markatzea: *etorrarazi dizute* (v *etorrarazi zaituzte*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=4&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

alternantziak, arazleak, datiboak, kasua, komunztadura/klitikoak

Deskribapena

Egitura arazleetan, hots, (1) bezalakoetan, *arazideritzogu* mendeko predikatuaren subjektuari. Egitura hauetan, perpaus nagusiko subjektuak, *arazlederitzonak*, mendeko predikatuak adierazten duen ekintza eginarazten dio araziari.

(1)	Zu	etorrarazi/etorri eragin	zaituzte
	zu.ABS	etor.CAUS.PTCP	2ABS.edun.3PL.ERG

(1) adibidean, hirugarren pertsonako arazle inplizitu bat dago, aditz laguntzailearekin hirugarren pertsona pluraleko ergatibo komunztadura erakusten duena, alegia. Bestalde, arazia bigarren pertsona singularreko *zui*zenordaina da eta mendeko predikatua, aldiz, *etorri*. Hala, adibide hauetan, hirugarren pertsonako arazle inplizitu batek arazia etortzea eragiten du.

Kapitulu honetan, mendeko predikatu inakusatiboa (hala nola *etorri*) duten egitura arazleei erreparatuko diegu; zehazki, egitura hauetako arazien kasu markaketak erakusten duen aldakortasun dialektalari.

(1)eko adibideak erakusten duenez, eredu orokorrean, arazi inakusatiboak absolutiboarekin markatzen dira. Hain zuzen, bigarren pertsonako izenordainak absolutibo kasu marka erakusten du. Aldiz, hizkera batzuek arazi inakusatiboen datibo markatzea lehenesten dute (2) (Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegia 1989: 99-107; Ortiz de Urbina 2003b: 596–8; Fernándezeta Ortiz de Urbina 2010: 22, 29; Odria 2017: 84):

(2)	Zuri	etorrarazi/etorri eragin	dizute
	zu.DAT	etor.CAUS.PTCP	edun.2DAT.3PL.ERG

Banaketa dialektala

(1) eta (2)ko egituren banaketa dialektala Ortiz de Urbinak (2003b: 596) aipatzen du, baita Odriak (2017: 84) ere. Oro har, ekialdeko hizkeretan absolutiboz markatzen dira arazi inakusatiboak, eredu orokorrarekin bat etorritz (1). Mendebaleko hizkeretan, berriz, arazia datiboz markatu ohi da egitura hauetan (2), bizkaieraz bereziki.

Datu-basearen emaitzak

Datu-basean jasotako emaitzak aurreko atalean aipatutako banaketa dialektalarekin bat datoz. Absolutiboz markatutako araziak (1) ekialdean aurki ditzakegu, hala nola Iparraldeko hizkera guztietan (Ziburu, Larresoro, Oragarre eta Urdiñarbe). Horrez gain, Nafarroa ekialdeko (Orbaizeta), erdialdeko (Imotz) zein hego-mendebaleko (Arbizu) aldaeretan ere (1)eko egiturak ageri dira.

Aldiz, Ortiz de Urbinak (2003b) aipatu bezalaxe, datiboz markatutako araziak (2) mendebaleko hizkeretan aurki daitezke, Bizkaia osoko hizkeretan eta Gipuzkoa eta Nafarroako mendebaleko aldaeretan, hain zuzen. (2)ko ereduak are ekialderago ere lekukotu da, zehazki Nafarroako iparraldeko eta ekialdeko hizkera batzuetan, Goizueta, Baztan eta Erroibarren, kasu.

Gipuzkoako ipar-ekialdean, bi egiturak bata bestearengandik hurbil aurki daitezke: Irunen eta Hernanin arazi absolutiboa lekukotu da; Errenterian, aldiz, datiboz markatutakoa.

Aipamenak

Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegia. 1989. «Inkorporazioa perpaus kausatiboetan». In Pello Salaburu (eds.), *Sintaxi teoria eta euskara*. VII. Udako Ikastaroak. Donostia: UPV/EHU. 87-119.

Fernández, Beatriz and Jon Ortiz de Urbina. 2010. *Datiboa hiztegia*. Bilbo: UPV/EHU.

Odria, Ane. 2017. *Differential Object Marking and datives in Basque syntax*. Ph.D. diss., UPV/EHU.

Ortiz de Urbina, Jon. 2003b. «Causatives». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 592-607.

i.13. Me-lui murriztapena (*etorri natzaizu*)

Egilea: Endika Legarra

Nola aipatu: Legarra, Endika. (2022). Me-lui murriztapena (*etorri natzaizu*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=5&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

datiboak, kasua, komuntzadura/klitikoak, Me-lui murriztapena, Pertsona-Kasuaren Muga

Deskribapena

Euskaraz kasu gramatikala, hots, ergatiboa, absolutiboa eta datiboa daramaten izen sintagmek, aditzarekin komunztadura egiten dute, aditz sintetiko nahiz analitikoetan. Komunztadura, pertsona eta numeroaren arabera da, eta 1., 2. eta 3. pertsonak bereizten dira, singularrean eta pluralean. (1) adibidean, hiru kasuok biltzen dituen aditz ditransitiboa dugu:

(1)	Zuk	niri	liburua	eman	didazu
	zu.ERG	ni.DAT	liburua.ABS	eman.PTCP	3ABS.edun.1SG.DAT.2SG.ERG

Alabaina, komunztadurak zenbait muga ditu. Horietako bat Me-lui Murriztapena (ingelesez, Me-lui Constraint), *Pertsona-Kasuaren Muga* izenez ere ezaguna dena. Murriztapen honek forma datibodunei eragiten die, eta bereziki ditransitiboei, hots, hiru pertsona barnebiltzen dituztenei. Murriztapen honen arabera, aditzean datibo klitikoren bat egonez gero, absolutibo klitikoak 3. pertsonakoa izan behar du. Alegia, ezin dira datiboa (pertsona edozein izanda ere) eta 1. edo 2. pertsonako absolutiboa konbinatu. Beraz, (2)ren moduko perpausak ezgramatikalak dira, hizkera edozein dela.

(2)	*Zuk	ni	harakinari	saldu	naiozu
	zu.ERG	ni.ABS	harakina.DAT	sal.PTCP	1SG.ABS.edun.1SG.DAT.2ERG

(Laka
1993a)

Albizuren (1997) hitzetan, murriztapen hau osagarri zuzenaren eta zehar osagarriaren arteko komunztadura marken konbinazio partikularren aurkako baldintza morfologiko bat da. Perpaus ditransitiboetako osagarri zuzena mugatzen du, hain zuzen ere. Ezaugarri hau ohikoa da beste hainbat hizkuntzatan ere, esaterako, hizkuntza erromantzeetan. Fenomeno unibertsal baten aurrean gaude, beraz.

Esan bezala, Pertsona-Kasuaren Muga forma ditransitiboen ezaugarria da nagusiki; forma iragangaitz datibodunetan ez da hain modu hertsian behintzat. Egitura hauetan, datibo klitiko bat eta 1. edo 2. pertsonako absolutibo klitiko bat konbina daitezke, aditz sintetiko zein analitikoetan. Forma sintetikoak hizkera guztietan lekukotzen dira, maiztasuna gorabehera, ondoko adibidean bezala:

(3)	Ni	zuri	berandu	natorkizu
	ni.ABS	zu.DAT	berandu	1SG.ABS.etor.2SG.DAT

Analitikoek kasuan, ordea, sortzen diren formak arraroak edo behintzat, erabilera murriztekoak dira. Edonola ere, hizkera batzuetan beste batzuetan baino ohikoagoak eta beraz, onargarriagoak dira. Hori dela eta, hizkera eredutzat hartu ditugu mota honetako egiturak (4).

(4)	Ni	zuri	etorri	natzaizu
-----	----	------	--------	----------

Bestalde, esan beharra dago forma hauek testu zaharretan ere lekukotzen direla –ikus adibidez Etxepare eta Oihartzabal (2008, 2013), nafar-lapurterarako–. Egungo euskarari dagokionez, neurri handi batean forma idatzi eta jasoetan lekukotzen dira batez ere.

Datu-basearen emaitzak

Ezaugarri honen banaketa dialektala ez da zurruna. Izan ere, hizkera eredia Euskal Herri osoko herrietan lekukotzen da, besteak beste Mungian, Goizuetan eta Ziburun. Dena den, aztertutako hizkera gehienetan ez da lekukotzen.

Laburbilduz, Me-lui murriztapena egitura ditransitiboetako ezaugarria bada ere, egitura iragangaitz datibodunetan ere murriztapen honen zantzuak topa daitezke, batez ere forma analitikoetan.

Aipamenak

Albizu, Pablo. 1997. «Generalized Person Case Constraint: A case for a syntax-driven inflectional morphology». In Myriam Uribe-Etxebarria and Amaia Mendikoetxea (eds.), *Theoretical issues on the morphology-syntax interface. [Supplements of the International Journal of Basque Linguistics and Philology (ASJU) XL]*. Donostia: UPV/EHU. 1-33.

Etxepare, Ricardo and Beñat Oyharçabal. 2008. «Bi datibo egitura ifar-ekialdeko zenbait hizkeratan». *Lapurdum*, 13. 145-158.

Etxepare, Ricardo and Beñat Oyharçabal. 2013. «Datives and adpositions in north-eastern Basque». In Beatriz Fernández and Ricardo Etxepare (eds.), *Variation in datives: a microcomparative perspective*. New York: Oxford University Press. 50-95.

Laka, Itziar. 1993a. «The Structure of Inflection: a Case Study in X° Syntax». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *Generative Studies in Basque Linguistics. Current Issues in Linguistic Theory*. John Benjamins Publishing Company. 21-70.

i.14. Lehenaldiko egitura iragangaitz

datibodunak: *jatan* (v *zitzaidan*)

Egilea: Ane Odria

Nola aipatu: Odria, Ane. (2022). Lehenaldiko egitura iragangaitz datibodunak: *jatan* (v *zitzaidan*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=52&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aplikatiboak, datibo ikurra, datibo komunztadura/klitikoak, datiboak, irangaitz datibodunak

Deskribapena

Euskaraz egitura irangaitz datibodunetan *zit-* morfema daukagu lehenaldian.

(1)	bururatu	zitzaidan
	burura.PTCP	(3ABS).(izan).APPL.1SG.DAT.PST

Mendebaleko euskararen eta ekialdeko zenbait hizkeratan, ordea, *zit-* morfema galdu egiten da (Hualde 2003: 220, 2016; Zuazo 2006: 84-85, 2014: 85, 94, 199, 2017: 29).

(2a)	bururatu	jatan
	burura.PTCP	(3ABS).(izan).APPL.1SG.DAT.PST
(2b)	bururatu	zeitán
	burura.PTCP	(3ABS).(izan).APPL.1SG.DAT.PST

Banaketa dialektala

Adizki irangaitz datibodunetan lehenaldian *zit-* morfema ez agertzea mendebaleko euskararen eta euskara zuberotarraren ezaugarria da besteak beste (Zuazo 2014: 119). *Jatan* eta *jakun* bezalakoak erabiltzen dira mendebalean eta *zeitán* eta *zeikin* gisakoak Zuberoan. Datu-baseak erakusten duenez, badira, hala ere, era honetako aditz formak erabiltzen dituzten beste hizkera batzuk ere.

Mendebaleko euskalkiari dagokionez, Zuazok (2014: 94) aipatzen du datibodun inakusatiboetan lehenaldiko adizkietan ez dela *zit-* morfema erabiltzen. Euskalki honetan, lehenaldiko formak sortzeko orainaldiko adizkiei *-(e)n* morfema gaineratzen zaie: *yatan* ‘zitzaidan’, *jakon* ‘zitzaion’, *jakun* ‘zitzaigun’. Arabako Lazarragak berak ere *zit-* gabeko formak erabili zituela gaineratzen du Zuazok (2017: 29).

Ezaugarri morfo-sintaktiko honek mendebaleko eta erdialdeko euskalkiak bereizten dituenez, Deba Ibarreko hizkeretan aurkitzen dugu fenomenoaren muga dialektala. Zuazok (2006: 84-85, 148) dioenez, Deba Ibar gehienak mendebaleko ezaugarriari eusten dio, lehenaldiko formak orainaldikoei *-(e)n* gehituta osatzen baitira: *jata* > *jatan* ‘zitzaidan’, *jako* > *jakon* ‘zitzaion’. Oraingo honetan ere Debabarrena da salbuespena, Mendaro eta Deba batez ere. Erdialdeko euskalkian bezala, hizkera hauetan *zit-* morfema erabiltzen da, Ø-rekin alternantzia beti ere –Deba erdialdeko euskalkian kokatzen da, Mendarokoa, berriz, mendebaleko eta erdialdeko euskalkien tarteko hizkera da–. Halaber, mendebaleko eta erdialdeko euskalkien tarteko hizkera izanik, Mutrikun bai *zit-* eta bai Ø-

aurki ditzakegu, lehendabizikoa adinekoen artean entzuten da batez ere, bigarrena, berriz, gazteenen artean. Zuazoren hitzetan (2006: 85), “badirudi, beraz, alderantzizko bidea ibiltzen hasi direla gazteak berriro, eta “zaharrak berri” gertatu direla”, *zit-* morfemaren erabilera erdialdeko euskalkiaren berrikuntzat har baitaiteke (Zuazo 2006: 84). Mutrikukoa bezala, tarteko hizkera da Elgoibarkoa ere, eta Makazagak (2009: 166) dioenez, *zit-* gabeko *jatan*, *jakon* eta *jakun* bezalako formekin batera agertzen dira *zitzatan*, *zitzakon* eta *zitzakun* bezalakoak erdialdeko hizkeren eraginez. Laburbilduz, fenomenoaren muga dialektalaren isla da Debarrean aurkitzen dugun aldakortasuna: mendebaleko euskalkian sartzen den Eibarko hizkeran *jatan* erabiltzen da, erdialdeko euskalkiko Debako hizkeran *zitzaten*, eta tarteko hizkeratzen hartzen diren Mendaro, Mutriku eta Elgoibarren biak: *zitzatan* Mendaron, *jatan* eta *zitzatan* Elgoibarren eta, gorago esan bezala, *zaten* eta *zitzaten* Mutriku (Makazaga 2009: 475).

Esan bezala, mendebaleko euskararekin batera euskara zuberotarrean ere ez da *zit-* morfema erabiltzen iragangaitz datibodunetako lehenaldiko aditz formak osatzeko; orainaldikoei *-(e)n* gehitzen zaie hemen ere, *zéitan* ‘zitzaidan’ eta *zeiñon* ‘zitzaion’ bezalako adizkiak sortuz (Zuazo 2014: 85).

Mendebaleko eta Zuberoako euskaraz gain, euskara nafarrean ere aipatu izan da *zit-* gabeko lehenaldiko formen erabilera datibodun iragangaitzetan. Baztango -hizkeraz ari direla, Salaburu eta Lakarrek (2005: 97), esaterako, eskualde honetan biak agertzen direla aipatzen dute, *zit-*dun (*zitzaiten/zitzaitziten*, *zitzaion/zitzaitzikon*) formak zein *zit-* gabekoak (*zaiten*, *zaion*). Halaber, Goierri eta Tolosalde hegoaldean iragangaitz datibodunen iraganaldia *zit-* morfemarekin osatzen bada ere, Zegamako hizkeran *zit-* gabekoak ere jaso izan dira: *zitan* ‘zitzaidan’, *zikon* ‘zitzaion’, *zikun* ‘zitzaigun’, *ziten* ‘zitzaian’ (Hurtado 2001: 93).

Datu-basearen emaitzak

Mendebaleko hizkeretan baino ez da aurkitzen *jatan* ‘zitzaidan’ (2a) aditz forma. Honako hauetan, hain zuzen ere: Aramaio, Artea, Bergara, Elgoibar, Gernika, Getxo, Lekeitio, Loiu, Mungia eta Otxandion.

Euskara zuberotarrari lotu izan zaion *zeitan* (2b) aditz-forma, berriz, euskara nafarrean (Arbizun, Urdiainen eta Arizkun (Baztan)), nafar-lapurtarrean (Oragarren) eta zuberotarrean (Urduñarben) lekukotzen da.

Aipamenak

Hualde, José Ignacio. 2016. «On Basque dialects». In Beatriz Fernández and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *Microparameters in the grammar of Basque*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 15-36.

Hurtado, Irene. 2001. *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*. Lazkao: IX. Gerriko Ikerlan Sariketa.

Makazaga, Jesus Mari. 2009. *Elgoibarko euskara*. Ph.D. diss., UPV/EHU.

Salaburu, Pello and Maite Lakar. 2005. *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Iruñea: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.

Zuazo, Koldo. 2006. *Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta tokiko batua*. Badihardugu Euskara

Elkartea.

Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

Zuazo, Koldo. 2017. *Mendebaleko euskara*. Donostia: Elkar.

i.15. Lehenaldiko aditz jokatuako absolutiboa 3. pertsona denean: Ø (v z)

Egilea: Ane Odria

Nola aipatu: Odria, Ane. (2022). Lehenaldiko aditz jokatuako absolutiboa 3. pertsona denean: Ø (v z). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=14&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

denbora markak, hirugarren pertsona

Deskribapena

Euskaraz lehenaldiko aditz jokatueta z- morfema azaltzen da absolutiboa 3. pertsonakoa denean. Inakusatiboetako subjektuekin (1a) eta osagarri zuzenekin (1b, 2a, 2b) gertatzen da hau, bata zein bestea markatzen baitira absolutiboz.

(1a)	Jon Jon.ABS	hondartzan hondartza.INE	zegoen (3ABS).egon.PST	
(1b)	Jonek Jon.ERG	surf-ohola surf-ohola.ABS	zekarren (3ABS).ekar.(3ERG).PST	
(2a)	Jonek Jon.ERG	surf-ohola surf-ohola.ABS	ekarri ekar.PTCP (3ABS).edun.(3ERG).PST	zuen
(2b)	Jonek Jon.ERG	surf-ohola surf-ohola.ABS	ekarri ekar.PTCP	zidan (3ABS).(edun).APPL.1SG.DAT.(3ERG).PST

Mendebaleko hizkeretan, aldiz, 3. pertsonako absolutibodun adizkietan Ø- dago, eta ez z- (Zuazo 2014: 94, 2017: 30; Hualde 2016).

(3a)	Jon Jon.ABS	hondartzan hondartza.INE	egoan (3ABS).egon.PST	
(3b)	Jonek Jon.ERG	surf-ohola surf-ohola.ABS	ekarern (3ABS).ekar.(3ERG).PST	
(4a)	Jonek Jon.ERG	surf-ohola surf-ohola.ABS	ekarri ekar.PTCP	eban (3ABS).edun.(3ERG).PST
(4b)	Jonek Jon.ERG	surf-ohola surf-ohola.ABS	ekarri ekar.PTCP	eustan (3ABS).(edun).APPL.1SG.DAT.(3ERG).PST

Banaketa dialektala

Erdialdeko eta ekialdeko hizkeretan ez bezala, mendebaleko hizkeretan oro har absolutiboa 3. pertsonakoa denean Ø- agertzen da iraganaldiko adizki gehienetan, ez z- orokorra: *eban* ‘zuen’, *otsun* ‘zizun’, *euken* ‘zeukan/zeukaten’, *ekien* ‘zekien/zekiten’, *etorren* ‘zetorren’, *etozen* ‘zetozen’... (Zuazo 2014: 94).

Mendebaleko euskararen beste hainbat ezaugarriekin gertatzen den bezala, Arabako lekuko batzuetan ere agertzen da iraganaldiko adizkietan Ø- absolutiboa 3. pertsonakoa denean, baita z- ere. Morfema biak agertzen dira Deba Ibarrean ere (Zuazo 2006: 85). Deba Ibarreko Debarrenean, Bergaran eta Antzuolan, esaterako, z- dago 3. pertsonako absolutibodun iraganaldiko adizkietan, erdialdeko euskalkian bezala. Dena dela, Zuazok (2017: 30) azaltzen duenez, leku guztietan ez da betikoa z- morfemaren erabilera. Antzuolan, esate baterako, gaur egun z- nagusitzen bada ere, XVII. mendearen amaieran Ø- erabiltzen zen: *eban* ‘zuen’, *ebeen* ‘zuten’, *euskun* ‘zigun’, *eukan* ‘zeukan’... XIX. mendearen erdialderako, ordea, z- gailendu zela adierazten du Zuazok. Bergara ere mendebaleko eta erdialdeko hizkeren artean kokatzen da, Ø-ekin batera z- ere erabiltzen baita (Badihardugu 2006): *eban/zeban*, *etorren/zetorren*, *otsan/zotsan*... Adineko hiztunen artean Ø- oso arrunta bada ere, z-dun formak nagusitzen ari dira gaur egun. Dena dela, aditz forma batzuk beti entzun dira z-ekin: *zan*, *zittuan*, *ziharduan*... Deba Ibarreko gainerako alderdietan ere z-/Ø- lehia ageri da; adinez nagusienez Ø- darabilte eta gazteenek z- (Zuazo 2006: 85). Ermuan, Elgetan eta Bergarako zenbait auzotan eutsi zaio ondoen mendebaleko ezaugarriari, baina herri hauetan ere z- zabaldu da hiztun gazteenen artean.

Mendebaleko eta erdialdeko euskalkien artean kokatzen denez, Debarrenean aurkitzen dugu oraingoan ere fenomenoaren muga dialektala, Eibar eta Elgoibar artean hain zuzen ere –Eibar mendebaleko euskalkian kokatzen da; Elgoibarren, ostera, mendebaleko eta erdialdeko euskalkien tarteko hizkera erabiltzen da–. Makazagak (2009: 151) dioenez, Elgoibarren z- erabiltzen da beti.

Eibartik mendebalera, ostera, Ø-. Hona hemen Makazagak (2009: 151) ematen dituen zenbait adibide:

(5a)	<i>eguan</i> (Eibartik mendebalera)	vs.	<i>zauan</i> (Elgoibar)
(5b)	<i>eban</i> (Eibartik mendebalera)	vs.	<i>zaban/zauan</i> (Elgoibar)
(5c)	<i>ekarren</i> (Eibartik mendebalera)	vs.	<i>zekarren/zakarren</i> (Elgoibar)
(5d)	<i>esan etsan</i> (Eibartik mendebalera)	vs.	<i>esan zion</i> (Elgoibar)

Aipatzekoa da, halaber, Bizkaiko hizkera batzuetan ere *z-* erabiltzen dela **edun*-en absolutiboa 3. pertsonako singularra denean ere: *seuen/sauen* ‘zuen’, *seurien/saurien* ‘zuten’. Gehienbat Busturialdeko, Mungialdeko eta Txorierriko alderdi batzuetan eta Galdakaon entzuten dira halakoak, hiztun gazteen artean batez ere (Zuazo 2017: 30).

Azkenik, kontuan hartzekoa da mendebalean Ø- morfemaren erabilera ez dela iraganaldiko **edun* erroaren adizki guztietara hedatzen. 3. pertsonako osagarri absolutiboa plurala denean, adibidez, *z-* agertu ohi da: *zitudan, zitudun...* Era berean, *izan* aditzaren lehenaldiko formetan ere *z-* agertzen da, Ø- morfemarekin alternantziarik egin gabe. Zuazok (2006: 85) gaineratzen duenez, beste aditz batzuen lehenaldiko formetan ere mantentzen da *z-* mendebaleko euskaran: *izan* (*zan* ‘zen’, *zinan* ‘zinen’), *jardun* (*ziharduan* ‘ziharduen’, *ziharduen* ‘ziharduten’), *iruditu* (*zirudixan* ‘zirudien’, *zirudixen* ‘ziruditen’),..

Datu-basearen emaitzak

Datu-basean ikus daitekeenez, lehenaldiko aditz jokatu 3. pertsonako absolutiboa Ø- izatea mendebaleko ezaugarria da argi eta garbi. Mendebaleko hizkera guztietan lekukotzen da fenomenoak: Aramaio, Artea, Bergara, Gernika, Getxo, Lekeitio, Loiu, Mallabia, Mungia, Otxandio.

Espero izatekoa den moduan, fenomenoak ez da lekukotzen erdialdeko euskaran (Azpeitia, Beizama, Errenteria, Etxaleku (Imotz), Hernani, Irun, Itsasondo), euskara nafarrean (Arbizu, Arizkun (Baztan), Goizueta, Mezquiritz (Erroibar), Orbaizeta, Urdiain), nafar-lapurtarrean (Larresoro, Oragarre, Ziburu) eta zuberotarrean (Urdiñarbe).

Aipamenak

Badihardugu Deba Ibarreko Euskara Elkarteak. 2006. *Deba Ibarreko aditz taulak (3). Bergara, Debaerdikoa*. Eibar: Badihardugu.

Hualde, José Ignacio. 2016. «On Basque dialects». In Beatriz Fernández and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *Microparameters in the grammar of Basque*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 15-36.

Makazaga, Jesus Mari. 2009. *Elgoibarko euskara*. Ph.D. diss., UPV/EHU.

Zuazo, Koldo. 2006. *Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta tokiko batua*. Badihardugu Euskara

Elkartea.

Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

Zuazo, Koldo. 2017. *Mendebaleko euskara*. Donostia: Elkar.

i.16. Ergatiboaren lekualdatzearen neutralizazioa: *emon dostezun* (v *zeunstan*, *zenidan*)

Egilea: Endika Legarra

Nola aipatu: Legarra, Endika. (2022). Ergatiboaren lekualdatzearen neutralizazioa: *emon dostezun* (v *zeunstan*, *zenidan*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=6&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

ergatiboaren lekualdatzea, ergatiboaren lekualdatzearen galera, ergatiboaren lekualdatzearen neutralizazio partziala, ergatiboaren lekualdatzearen neutralizazioa, ergatibotasuna, kasua, komunztadura/klitikoak

Deskribapena

Euskal aditz inflexioak absolutibo, ergatibo eta datibo klitikoak (edo komunztadura markak) biltzen ditu. Absolutibo klitikoak, aurrizkiak diren heinean, erroaren aurretik (edo ezkerretara) kokatzen dira, aditz laguntzaile jokatuaren edo adizki sintetikoaren lehen posizioan. Datibo eta ergatibo klitikoak, aldiz, atzizkiak direnez, erroaren atzean (edo eskuinetara) kokatzen dira. Aurrizkiek eta atzizkiek forma ezberdinak hartzen dituzte. Adibidez, 1. pertsona singularraren absolutiboko klitikoa *n-* da; ergatibo eta datibokoa, berriz, *-da/-t*.

Alabaina, sistema honek salbuespenak ditu. Izan ere, ergatiboa 1. edo 2. pertsona eta absolutiboa 3. pertsona direnean, orainaldikoak ez diren forma iragankor zein ditransitiboetan, *Ergatiboaren Lekualdatzea* (EL) gertatzen da (Laka 1988, 1993a): ergatibo argumentuak absolutiboko klitikoan (aurrizkien) bidez egiten du komunztadura. Hau, esan bezala, orainaldikoak ez diren formatan gertatzen da, hots, iraganeko eta alegiazkoetan. Eredu orokorra jarraitzen duten hizkerek sistema hau dute (1a,b):

(1a)	egin	dut
	egin.PTCP	(3ABS).edun.1SG.ERG

(1b)	egin	nuen	
	egin.PTCP	1SG.ABSERG.edun.PST	(EL)

Mendebaleko hizkera batzuetan, ordea, *EL-ren neutralizazioa* gertatzen da, Hualdek (2000, 2002) EL-ren galera dakarrena nolabait. 1. hizkera eredu (2) jarraitzen duten hizkeretan EL-ren neutralizazioa gertatzen da forma ditransitibo guztietan. Hortaz, ergatibo argumentuei ergatibo klitikoak egozten zaizkie, ez absolutibokoak, edo bestela esanda, ez dira *lekualdatzen*.

(2)	emon	dostezun	
	eman.PTCP	(3ABS).have.1SG.DAT.2ERG.PST	(EL-ren neutralizazioa)

Halaber, hizkera hauetako batzuetan, EL-ren neutralizazioa forma iragankorretara ere hedatzen da. Hortaz, EL erabat galtuta dute, forma guztietan. Hizkera hauek 1. azpi-hizkera eremuan sartu ditugu (3).

(3)	egin	doten	
	egin.PTCP	(3ABS).edun.1SG.ERG.PST	(EL-ren neutralizazioa)

Neutralizazio honetaz gain, beste hizkera batzuek EL-ren Neutralizazio Partziala (Hualde 2002) daukate. Hizkera hauek EL-dunak dira, baina fenomeno gertatu beharko litzatekeen zenbait testuingurutan neutralizatu egiten da, hots, ergatibo argumentuak ergatibo klitikoak darama. Hau 2. pertsonako ergatibo argumentuekin gertatzen da batez ere; 1. pertsonakoek EL zaintzen dute.

(4)	eman	zidazun	
	eman.PTCP	(3ABS).1SG.DAT.edun.2ERG.PST	(EL-ren neutralizazio partziala)

Datu-basearen emaitzak

Eredu hau (2) jarraitzen duten hizkerak Arteakoa, Bergarakoa, Gernikakoa, Loiukoa eta Mungiakoa dira, baita Hualdek deskribatzen duen Bermeokoa ere.

Eredu hau (3) Lekeitio eta Mungian jarraitzen dute, baita Bermeon ere (Hualde 2000).

EL-ren Neutralizazio Partziala 2. hizkera ereduari (4) dagokio eta, mendebaleko hizkerez gain (Mallabia edota Aramaio), erdialdeko zenbait hizkerak ere jarraitzen dute (Azpeitia, Errenteria eta Hernani), baita Nafarroako Erroibarrek ere.

Eztabaida teorikoa

Hualderen iritziz, (2), (3) eta (4) adibideetako neutralizazioa orainaldiko formen analogiaren ondorioz sortzen da (*dostezu* > *dostezun*, *dot* > *doten*, *didazu* > *zidazun*). EL-ren galera, maiztasun txikieneko formetan da ugariena. Maiztasun handieneko formetan, berriz, zailagoa da neutralizazioa gertatzea. Hualdek (2000, 2002) hurrenkera hau proposatzen du (5), neutralizazio handiena jasaten duten formetatik gutxien jasaten dutenetara.

	ABS-DAT-	ABS-DAT-	ABS-ERG	ABS-
(5)	ERG (1PL/2)	ERG (1SG)	(1PL/2) >>	ERG
	>>	>>		(1SG)

Beraz, *zenidan* > *zidazun* motakoak izango lirateke neutralizatzen lehenengoak eta *neban* > *doten* motakoak azkenak.

Aipamenak

- Hualde, José Ignacio. 2000. «Bizkaiko kostaldeko hizkerak gaur eta bihar». In Koldo Zuazo (eds.), *Dialektologia gaiak*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia. 16-25.
- Hualde, José Ignacio. 2002. «On the loss of Ergative Displacement in Basque and the role of analogy in the development of morphological paradigms». *Lincom Europa* 1, 219-230.
- Laka, Itziar. 1988. «Configurational heads in Inflectional Morphology: The structure of the inflected forms in Basque». *International Journal of Basque Linguistics and Philology (ASJU)* XXII-2. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 343-366.
- Laka, Itziar. 1993a. «The Structure of Inflection: a Case Study in X° Syntax». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *Generative Studies in Basque Linguistics. Current Issues in Linguistic Theory*. John Benjamins Publishing Company. 21-70.

i.17. Zenbait aditz inergatibotako subjektu

absolutiboak: *borrokatu naiz* (v *dut*)

Egilea: Ane Berro

Nola aipatu: Berro, Ane. (2022). Zenbait aditz inergatibotako subjektu absolutiboak: *borrokatu naiz* (v *dut*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=1&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aditz inergatiboak, aditz laguntzaile alternantzia, ergatibotasuna, kasua

Deskribapena

Euskara hizkuntza ergatiboa da morfologikoki (Levin 1983; Ortiz de Urbina 1989). Hala, subjektuak mi multzotan bereizten dira kasu eta komuntadura markapenaren arabera; perpaus iragankorren subjektuek ergatibo kasua erakusten dute eta ergatibo komuntadura aditz laguntzailean (1); perpaus iragangaitzen subjektuek, aldiz, ergatibo ala absolutibo kasu markak erakuts ditzakete perpauseko aditzaren arabera (2) (3), Ergatibo markapena jasotzen dutenean, **edun* aditz laguntzailea hautatzen da (3); absolutibo markapena jasotzen dutenengan, berriz, *izan* aditz laguntzailea (2).

(1)	Nik ni.ERG	liburua liburu.ABS	erosi erosi.PTCP	dut edun.1ERG
(2)	Ni ni.ABS	etorri etorri.PTCP	naiz izan.1ABS	

Eredu orokorrean eta, nagusiki, mendebaleko eta erdialdeko euskalkietan, aditz inergatiboen subjektuak ergatiboz markatzen dira eta, aldiz, subjektu inakusatiboak absolutiboz.

(3)	Nik ni.ERG	borrokatu / borroka.PTCP / borroka	borroka borroka	egin egin.PTCP	dut (3ABS).edun.1SG.ERG
-----	---------------	---	--------------------	-------------------	----------------------------

Zenbait euskalkitan, ordea, esanahiaren aldetik aditz inergatibo gisa sailkatu litezkeen aditz batzuek absolutibo kasua erakusten dute subjektuan eta absolutibo komuntadura *izan* aditz laguntzailean (Oihartzabal 1992; Fernández 1997; Aldai 2006, 2009; Albizu 2009; Berro 2010, 2012; Berro eta Etxepare 2017; Pineda eta Berro 2020).

(4)	Ni ni.ABS	borrokatu borrokatu.PTCP	naiz izan.1SG.ABS	
-----	--------------	-----------------------------	----------------------	--

Inakusatiboak alde batera, konfigurazio hori –absolutibo markapena eta *izan* aditz laguntzailearen hautaketa– bakarrik gertatzen da hitz bakarreko aditz inergatiboetan (ez dago, beraz, *izen + egin* itxurako inergatiboetan), eta nagusiki borondatezko ekintzak adierazten dituzten aditzetan aurkitzen dugu, hala nola, otordu aditzetan (*bazkaldu*), komunikazio aditzetan (*mintzatu*), eta bizidunen jarduerak (*jostatu*) eta mugitzeko moduak (*dantzatu*) adierazten dituzten aditzetan. Bestelako aditz iragangaitz batzuk, esate baterako estimulu isurtze aditzak (*dirdiratu*), bizigabeen mugitzeko modua (*kurritu*) eta iraupena (*berandu*) adierazten duten aditzak, ergatibo subjektuarekin eta **edun* aditz

laguntzailearekin batera agertzen dira, mendebaleko eta erdialdeko aldaeretan bezala (Berro 2010, 2012; Berro eta Etxepare 2017).

Banaketa dialektala

Aldakortasun horren berri hainbat dialektologia lanetan jaso da, batez ere otordu aditzei erreferentzia eginez. Esate baterako, Zuazok (2008: 161) ekialdeko berrikuntzen ezaugarrien artean zerrendatu du *afaldu*, *bazkaldu* eta *askaldu* otordu aditzak absolutibo subjektuaz jokatzeko. Bere esanetan, horrela egiten da Zuberoa eta Uztaritzeko eskualdea bitartean; bestalde, Lapurdiko hego-mendebalean ergatibo subjektua daraman konfigurazioa da nagusi haren arabera. Bestetik, EHHAK *afaldu zira* adibidea jaso du Zuberoan, Behe Nafarro gehienez eta Lapurdiko ekialdean. Zehatzago, Caminok (2016: 368) Amiküzen ematen du erabilera horren berri, eta nafar-lapurtarraren bi azpieuskalkien tarteko hizkera batean, Larresoron, otordu aditzak bi modutara erabil daitezkeela adierazi du Epeldek (2004: 178).

Datu-basearen emaitzak

Euskara Bariazioan (BiV) datu-basean *borrokatu* aditzaren aldakortasuna jaso da. Oro har, absolutibo subjektua eta *izan* aditz laguntzailea (4) daraman konfigurazioa ohikoagoa da ipar-ekialdeko hizkeretan: Oragarren, Larresoron, Ziburun, Orbaitzetan eta Baztanen. Nolanahi ere, erdialdeko hizkera zenbaitetan ere baiezko erantzuna jaso da (Errenterian eta Beizaman), baita tarteko hizkera batean ere (Imotzen).

Aipamenak

- Albizu, Pablo. 2009. «Euskararen kasu-sistema ergatiboa ala ergatiboak? Ergatibotasunaren azterketa dialektologiko baterako lehen urratsak». *Lapurdum* 13: 7-29.
- Aldai, Gontzal. 2006. «Is Basque morphologically ergative? The semantic split-intransitive case marking system of Western Basque». In Beatriz Fernandez and Itziar Laka (eds.), *Andolin Gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*. Leioa: UPV/EHU. 117-138.
- Aldai, Gontzal. 2009. «Euskararen kasu markaketaren aldakortasun dialektala». In Beatriz Fernández, Pablo Albizu and Ricardo Etxepare (eds.), *Euskara eta euskarak: aldakortasun sintaktikoa aztergai. [Supplements of the International Journal of Basque Linguistics and Philology (ASJU), LIII]*. Donostia: UPV/EHU and Gipuzkoako Foru Aldundia. 5-19.
- Berro, Ane and Ricardo Etxepare. 2017. «Ergativity in Basque». In Jessica Coon, Lisa M. Travis and Diane Massam (eds.), *The Oxford Handbook of Ergativity*. New York: Oxford University Press.
- Berro, Ane. 2010. *Unergative Predicates in Basque Varieties: Consequences for the Ergative Case Assignment*. DEA research work, UPV/EHU. [Available in the Internet: <http://www.ehu.es/seg/media/morf/5/12/2/1/sak/aneberrotesia.pdf>]
- Berro, Ane. 2012. «Three Levels of Root Insertion in Basque Intransitive Verbs». In Ernestina Carrilho

and Beatriz Fernández (eds.), *Journal of Portuguese Linguistics. Special Issue*, 11-1. Lisboa: Edições Colibri-Universidade de Lisboa. 7-22.

Camino, Iñaki. 2016. *Amiküze eskualdeko heskuara*. Iruña / Bilbo: Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia.

Fernández, Beatriz. 1997. *Egiturazko kasuaren erkaketa euskaraz*. Bilbo: UPV/EHU.

Ortiz de Urbina, Jon. 1989. *Parameters in the grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.

Oyharçabal, Beñat. 1992. «Structural case and inherent case marking: Ergaccusativity in Basque». *Supplements of the International Journal of Basque Linguistics and Philology (ASJU)*, XXVII. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 309-342.

Pineda, Anna and Ane Berro. 2020. «Hybrid intransitives in Basque» *Glossa: a journal of general linguistics*, 5(1), 22.

Zuazo, Koldo. 2008. *Euskalkiak, euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.

i.18. *Eduki eta jakin-en adizki sintetiko datibodunak: dekotzu, dakitzu*

Egilea: Itziar Mendizabal

Nola aipatu: Mendizabal, Itziar. (2022). *Eduki eta jakin-en adizki sintetiko datibodunak: dekotzu, dakitzu*. In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=15&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

datibo etikoak, datibo hunkituak, datiboak, forma sintetikoak, jabetzako edun, kasua, klitikoaren igoera, komunztadura/klitikoak

Deskribapena

Euskarazko aditz batzuek adizki sintetikoak dituzte (Euskaltzaindia 1979, 1997, 2021; Holmer eta Abrahamson 1968; Hualde et al. 2003; de Rijk 2008). Iragangaitzen artean *izan*, *etorri*, *ibiliedota egon* aipa genitzake; eta iragankorren artean, berriz, *eduki*, **edun*, *egin*, *ikusi* edota *eraman*. Aditz horien adizkietan absolutibo komunztadura marka egoten da (1), baita ergatiboarena ere aditz iragankorren kasuan –(1c) eta (1d)–. Komunztadura marka horiez gain, datibo komunztadura ere gehitu daiteke, –(k)i– atzizkiaren eta horren ondoren txertatzen den komunztadura datiboaren markapenaren bidez (Hualde et al. 2003), aditz iragangaitz (1b) zein iragankorretan (1d). Oro har, euskara batuan eta euskalki askotan, *eduki* eta *jakinsalbuespena* dira horri dagokionez, ez baitute datibo komunztadura erakusten (Euskaltzaindia 1997; Holmer eta Abrahamson 1968; Hualde et al. 2003).

(1a)	Laguna laguna.ABS	etxera etxe.ALL	dator (3ABS).etorri
(1b)	Laguna laguna.ABS	etxera etxe.ALL	datorkit (3ABS).etorri.APPL.1DAT
(1c)	Nik ni.ERG	liburua liburu.ABS	daramat (3ABS).eraman.1SG.ERG
(1d)	Nik ni.ERG	liburua liburu.ABS	daramakizut (3ABS).eraman.APPL.2DAT.1SG.ERG.

Adizki sintetikoak dituztenen artean *edukieta jakinaditz* iragankorrek *-(k)i* morfema erakusten dute haien partizipioetan (i.e. *edu-ki*, *ja-ki-n*). Nolanahi ere den, *-(k)i* duten beste aditz batzuen kasuan ez bezala, e.g. *atxikiedo jarraiki*(2a), *eduki* eta *jakin* partizipioen *-(k)i* morfemak beharbada ez du zerikusirik datibo komunztadurarekin harremanetan dagoen *-(k)i* morfema sintaktikoarekin, *eduki* eta *jakin*-ek ez baitute datibo argumenturik hautatzen eredu orokorrean, (2b) adibidean ikus daitekeen bezala. Ondorioz, *-(k)i izuna* dutela esan liteke (Fernández 2013).

(2a)	Sinesmena ri (Fernández 2013: 6)	baino	gehiago	maitasuna ri	datxekio		fede	mota	hori
	sinesmen. DAT	baino	gehiago	maitasun. DAT	(3ABS).atxiki.APPL.3DAT		fede	mota	hori.
(2b)	Zer zer	maila maila. ABS	dauka (3ABS).eduki.3SG.ERG		musikak musika.ERG	arteetan?	(Fernández 2013: 7)		

Beraz, esan genezake oro har *jakin* eta *eduki*-ren adizki sintetikoek ez dutela datibo komunztadurarik izaten. Nolanahi ere, mendebaleko *hizkera batzuetan*, bi aditzok datibo komunztadurarekin batera ikus ditzakegu forma sintetikoan (3):

(3a)	Belarriko belarriko	mine mina.ABS	dekotzu, (3ABS).eduki.APPL.2DAT.3ERG	Mari Mari	(Lezama, Gaminde 2006)	
(3b)	Erresue errezua	ba ba	ta, eta	nik ni.ERG	dakituzt (3ABS).jakin.APPL.2DAT.1SG.ERG	(Mungia, Gaminde 2006)

(3c)	Nik	entzute	dekotzet,	e,	gurean	amari
	ni.ERG	entzun.RES	(3ABS).eduki.APPL.3PL.DAT.3SG.ERG	eh	gure.INE	ama.DAT

Datibo komunztaduraren erabilera hori mintzakidearekiko begirunea edo hurbiltasuna adierazteko erabiltzen da (Fernández 2013; Gaminde 2007); baita sarritasuna adierazteko ere (Gaminde 2007). Hualde et al.-en (2003) hitzetan, berriz, datiboak *alderdi interesdunari* (*interested party* ingelesez) egin diezaioke erreferentzia.

Banaketa dialektala

Oro har, mendebaleko hizkeraren ezaugarritzat hartzen da aipatutako datibo komunztaduraren erabilera hori (Azkue 1925; Gaminde 2007; Zuazo 1988) baina Zuazok (1988) ez du uste *eduneta jakin* -en adizki sintetiko datibodunak mendebaldeko ezaugarri bereizgarria direnik. Azken finean, euskara nafarrean ere jaso izan da bereizgarri hori (Azkue 1925; Gaminde 2007; Zuazo 1988); zehazki, hego-sartaldeko azpieuskalkian eta Burundako eta Basaburuako tarteko hizkeretan (Zuazo 2014).

Datu-basearen emaitzak

Datu-basean (3a) adibidea Artean, Gernikan, Getxon, Lekeition, Loiun eta Mungian lekukotzen da, eta (3c)-koa aurretik aipatutako herrietan ez ezik, Otxandion ere bai. (3b), berriz, Gernika, Loiu, Mungia eta Errenterian jaso da. Bizkaiko lekukotzak bat datoz beste autore batzuek (Azkue 1925; Gaminde 2007; Zuazo 1988) jaso dituzten datuekin, baina Errenteriakoa jasotzea espero den eremutik kanpo dago. Errenterian ipar-sortaldeko tarteko hizkera darabiltenez (Zuazo 2014), pentsa liteke ezaugarri hau euskara nafarretik hedatu dela Errenteriara, baina herri bakarreko lekukotza ez da nahikoa ondorio horretara heltzeko; are gutxiago Nafarroa inguruan ere ez bada (3b) adibidea jaso.

Eztabaida teorikoa

Datibo komunztadura duten *jakin* eta *eduki*-ren adizki sintetikoaren (3a) eta (3b) adibideetan ez da ageriko argumentu datiborik ageri. Halako adibideei azalpena eman nahian, de Rijk (2008) dio euskarak ez duela datibo argumentua adierazteko beharrik, aditzeko komunztadura marka nahikoa baita hiztuna haren presentziaz jabetu dadin. Nolanahi ere, Fernández (2013) bestela uste du: haren hitzetan, (3a) eta (3b) adibideetako *edukieta jakin*-enadizki sintetikoaren datibo markek ez diete erreferentzia egiten argumentu izaera duten datibo determinatzaile sintagmei, datibo horiek ez baitute aditzak adierazitako gertaeran parte hartzen. Haren ustez, datibo komunztaduraz adierazten direnak datibo etikoak dira, eta izaera horrekin lotuta egongo litzateke datiboa determinatzaile sintagma gisa agertzeko ezintasuna.

Bestelakoa da (3c) adibidea. Kasu horretan, datibo determinatzaile sintagma (*amari*) agerikoa da. Fernández (2013) arabera, adibide horretan bi perpaus daude. Perpaus nagusiaren aditza *eduki* da, ergatibo argumentua (*nik*) subjektutzat eta partizipiozko egitura (*amari entzunda*) osagarritzat dituena. Menpeko partizipiozko perpaus horretan du jatorria, hain zuzen, datibo determinatzaile sintagma (*amari*). Mendeko egituratik perpaus nagusira igotzen denean hartzen du aditz nagusiak datibo komunztadura. Gertaera hori hizkuntza erromantzeetako *klitikoaren igoera*-ren parekoa izango litzateke (Fernández 2013).

Edukieta jakin aditzen forma sintetikoek datibo komunztadura izatea ez da gramatika edo lan askotan jasotzen; ez da aipatzen edo halakorik gertatzen ez dela adierazten da, Holmer eta Abrahamson (1968) edo Hualde eta Ortiz de Urbina (2003) lanetan esate baterako. EGLU II-n (Euskaltzaindia 1997) ere ez dira *edukieta jakin* aditzen forma iragankor datibodunak aipatzen, nahiz eta urte batzuk lehenago *Euskal Aditz Batua*-n (Euskaltzaindia 1979) tradiziozko formak direla onartu. Ezaugarri hori gramatiketan jasotzea edo ez jasotzea formak urriak izatearekin lotuta egon daiteke, edo herri hizkeren ezaugarria izanik, testigantza idatzi gutxi izatearekin (Fernández 2013).

Aipamenak

Euskaltzaindia. 1979. *Euskal Aditz Batua*. Donostia: Euskaltzaindia.

Holmer, Nils M. eta Vania Abrahamson de Holmer. 1968. «Apuntes vizcaínos: Primera parte».

Anuario Del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", 2, 87-141. Bilbo: UPV/EHU.

Zuazo, Koldo. 1988. «Bizkaieraren ezaugarriez gehiago» *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, 22(2), 367-377. Bilbo: UPV/EHU.

Hualde, Jose Ignacio, Beñat Oyharçabal eta Jon Ortiz de Urbina. 2003. «Synthetic verbs». In Jose Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*. Berlin/New York: De Gruyter, 233-242.

Arretxe, Jon. 1994. *Basauriko euskara*. Basauri: Basauriko Udala.

Azkue, Resurrección Maria. 1925. *Morfología Vasca*. Bilbao: Euskaltzaindia. [Berrargitalpena 1969, Bilbao: LGEV, 3 ale].

de Rijk, Rudolf P.G.. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): MIT Press.

Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1997]

- Euskaltzaindia. 2021. *Euskararen gramatika*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Fernández, Beatriz. 2013. «(K)i hiztegian, eta hiztegiak harantzago». *International Journal of Basque Linguistics and Philology (ASJU)*, 47-2. Bilbo: UPV/EHU. 1-26.
- Gaminde, Iñaki, A. Goikoetxea, Z. Sanz, O. Astobieta, E. Elgoibar and J. Gaminde. 2005. *Derioztarren euskara*. Derio: Derioko Udala.
- Gaminde, Iñaki. 2006. *Lezama Berbarik berba*. Lezama: Zorritzetan Kultura Alkartea.
- Gaminde, Iñaki. 2007. «Datibodun adizkiak jakin eta eduki aditzekin Bizkaian» *Euskalingua* 10. Mendebalde Kultura Alkartea. 53-64.
- Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

i.19. Ergatibo/absolutibo sinkretismoa

pluralean: --ak (v -ek)

Egilea: Ane Odria

Nola aipatu: Odria, Ane. (2022). Ergatibo/absolutibo sinkretismoa pluralean: *-ak* (v *-ek*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=51&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

ergatiboa, kasua

Deskribapena

Inguruko hizkuntza erromantzeak ez bezala, euskara hizkuntza ergatiboa da. Predikatu iragankorretako subjektuak ergatibo markapena darama; predikatu iragankorretako osagarriak eta predikatu iragangaitzetako subjektuak, aldiz, absolutiboa. *-k* da euskararen ergatibo marka, eta artikulua singularra *-a* izanik, ergatibo singularrak *-ak* forma hartzen du (1a). Ergatibo pluralak, berriz, *-ek*, artikulua plurala *-ak* baita (*-ak + -k > -ek*) (1b).

(1a)	Neskak neska.ERG	irabazi irabazi.PTCP	du (3ABS).edun.3SG.ERG
(1b)	Neskek neskak.ERG	irabazi irabaz.PTCP	dute (3ABS).edun.3PL.ERG

Absolutiboaren marka -Ø da euskaraz, eta beraz, ez singularrak (2a) eta ez pluralak (2b) ez dute ageriko markapen morfologikorik. Artikulu singular (-a) eta pluralak (-ak) bereizten ditu bata eta bestea.

(2a)	Neska neska.ABS	etorri etorri.PTCP	da izan.3SG.ABS
(2b)	Neskak neskak.ABS	etorri etorri.PTCP	dira izan.3PL.ABS

Ikus daitekeenez, beraz, euskarak -ak absolutibo plurala (2b) eta -ek ergatibo plurala (1b) bereizten ditu, baita -ak ergatibo singularra (1a) eta -ek ergatibo plurala (1b) ere. Halaxe gertatzen da euskara batuan ez ezik ekialdeko eta iparraldeko euskalkietan (Hualde 2003: 186-187, 2016; de Rijk 2008: 198; Zuazo 2014: 134). Mendebaleko eta erdialdeko euskalkietan, ordea, ergatibo singularrerako zein pluralerako marka berbera erabiltzen da, -ak (>*-aga-k) (3).

(3)	Neskak neskak.ERG	irabazi irabaz.PTCP	dute (3ABS).edun.3PL.ERG
------------	----------------------	------------------------	-----------------------------

Ergatibo singular eta pluralaren arteko bereizketa morfologikorik egiten ez denez, hizkera askotan azentuaren bidez desberdintzen dira bata zein bestea (Hualde 2003, 2016). Hualdek (2003: 187) dioenez, esaterako, Gernikako hizkeran (mendebaleko euskara) *gixonak* erabiltzen da ergatibo singularrerako eta *gixónak* azentuduna absolutibo zein ergatibo pluralerako. Halaber, Gipuzkoako zenbait hizkeratan ere azentuak bereizten ditu ergatibo singularra eta absolutibo zein ergatibo plurala; *gizónak* erabiltzen da ergatibo singularrerako eta *gizonak* absolutibo zein ergatibo pluralerako.

Banaketa dialektala

Zuazok (2014: 134) Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako ekialdeko ezaugarritzat jotzen du ergatibo singularra (-ak) eta plurala (-ek) bereiztea. (4) bezalakoak esan ohi dira eremu honetan (Zuazo 2014: 134). Zuazok dioenez, Ipar Euskal Herriaz gain, Baztan ibarrean, Urdazubin eta Zugarramurdin ere bereizten dira ergatibo singular eta pluraleko formak.

(4a)	Gizonak erran du
(4b)	Gizonek erran dute

Hego Euskal Herriko mendebaleko, erdialdeko eta sartaldeko euskara nafarrean, berriz, -ak erabili izan da bai singularrean eta bai pluralean, nahiz eta euskara batuaren eraginez gaur egun hizkera hauetan ere gero eta gehiago bereizten diren bata eta bestea. Hona hemen Zuazok (2014: 134) emandako adibideak:

--	--

(5a) Gizonak esan du

(5b) Gizonak esan due

Euskalkiez gaindiko bereizketa dakar, beraz, fenomeno honek. Ekialdeko euskalkiek era batera jokutzen dute, eta mendebaleko eta erdialdekoek bestera.

Datu-basearen emaitzak

Datu-basean jasotako erantzunek oro har fenomenoari egotzi izan zaion banaketa dialektala islatzen dute.

Mendebaleko hizkera guztietan lekukotzen da *-ak* marka ergatibo pluralerako (Aramaio, Artea, Bergara, Elgoibar, Gernika, Getxo, Lekeitio, Loiu, Mungia eta Otxandio). Erdialdekoen artean, Beizaman, Goizuetan eta Hernanin ere *-ak* erabiltzen da ergatibo singularerako zein pluralerako. Azkenik, euskara nafarrean Mezkitzen eta Urdiainen ere *-ak* morfema erabiltzen da bai ergatibo singular eta bai pluralerako. Hizkera hauetan ez da, beraz, ergatibo singular eta pluralaren arteko bereizketarik egiten.

Aitzitik, euskara nafarreko Arbizun eta euskara nafar eta nafar-lapurarraren tarteko hizkera duen Arizkunen (Baztan) ergatibo singularra eta plurala bereizten dira. Gauza bera gertatzen da Aezkoako Orbaizetan ere, euskara nafarraren, nafar-lapurarraren eta ekialdeko nafarraren tarteko hizkera duen horretan. Euskara nafar-lapurarra duten Ziburun eta Oragarren ere bereizten dira bi formak, baita Urdiñarben (euskara zuberotarra) ere. Horrenbestez, argi ikusten da, fenomeno aipatu duten lanetan jaso izan den bezala, ekialdeko eta iparraldeko hizkeren ezaugarria dela ergatibo singular eta plurala bereiztea.

Aipamenak

de Rijk, Rudolf P.G.. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): MIT Press.

Hualde, José Ignacio. 2016. «On Basque dialects». In Beatriz Fernández and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *Microparameters in the grammar of Basque*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 15-36.

Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

i.20. Pluraleko datibo marka: *-er*, *-eri* (v *-ei*)

Egilea: Irati Huarte

Gako-hitzak

datiboak, kasua

Deskribapena

Euskara estandarrean, datibo kasua pluraleko formei gaineratzen zaienean, *-ei* forma agertzen da (Hualde eta Ortiz de Urbina 2003: 181).

(1)	Lagunei	eman	diet
	lagun.PL.DAT	eman.PTCP	(3ABS).(edun).3PL.DAT.1SG.ERG

Hizkera anitzetan, ordea, datibo plurala *-eriformarekin* egiten da.

(2)	Laguneri	eman	diet
	lagun.PL.DAT	eman.PTCP	(3ABS).(edun).3PL.DAT.1SG.ERG

Horrez gain, badago datibo plurala egiteko hirugarren modu bat: ekialdeko *-er* (Zuazo 2014: 250).

(3)	Laguner	eman	diet
	lagun.PL.DAT	eman.PTCP	(3ABS).(edun).3PL.DAT.1SG.ERG

Banaketa dialektala

Hasteko, *-erdatibo* pluraleko forma Iparraldeko hizkera ugarian lekukotzen da. Ekialdeko hizkerekkin hasiz, *-eraldaera* ekialderen dauden eskualdetan entzun dezakegu, Zuazok (2014: 136) dioenez, Zuberoatik Hazparnera (Lapurdi) bitartean erabiltzen da, nahiz eta Hazparnen eta Larresoron (Camino 2004: 467) *-eriereerraten* duten. Zuberoatik hegoalderago *-eraurkitzen* dugu, adibidez, Behe-Nafarroa osoan (Camino 2004: 467). Caminok (2020: 112) Ortzaizeko 1985eko lekukotasun bat biltzen du:

(4)	Amikuzen to ta no aitamer
-----	---------------------------

Hala ere, aipatu beharra dago Behe-Nafarroako mendebaldean *-erialdera* ere lekukotzen dela, Baigorriin, Irisarrin etab. (Camino 2004: 467). Lapurdirekin jarraituz, *-erierabiltzeaz* gain, datibo plurala egiteko *-ermorfema* lekukotzen da, Hazparnen, Larresoron eta Uztaritzen, erraterako (Epelde 2004b: 85). Dena den, Arrangoitzen, Senperen eta Ainhoan *-iere* lekukotzen da (Epelde 2004a: 666, 2004b: 283). Ekialderago, ordea, Itsasutik aitzin -

erda aldaera nagusia (Epelde 2004a: 666).

Hegoaldean, *-er/eri/ei*formez gain bertze aldaera batzuk entzuten dira, izan ere, nafarrerak hainbat azpi-euskalki ditu. Erraterako, Sakana eskualdean hitz egiten den hego-sartaldeko (Zuazo 2014: 112) hiztunek datibo pluralean *-airi/-eir*darabilte (Zuazo 2010: 78):

(5) herriko txikienairi ‘herriko txikieneei’

(6) Lagilieiri eztaiz sueldoik eman ‘langileei ez diete soldatarik eman’

Nafarroako eta Gipuzkoako mugan ere, Bortzirietan, Irunen eta Hondarribian, datibo plurala egiteko bertze bi forma erabiltzen dira, *-akieta -akeri*(Sagarzazu 2005: 69; Zuazo 2014: 101). Kontuan hartu behar dugu *-(a)k*-morfema hori postposizio batzuekin ere erabiltzen dela (Zuazo 2014: 101), beraz, erran dezakegu hizkera hauetan ere *-(ak)er*forma dagoela. Nafarroarekin bukatuz, Iruñerri inguruko Txulapain, Oltza, Arakil eta Ezkabarte herrietan *-aida* datibo pluraleko morfema (Camino 1999: 72).

Erdialdeko euskalkira begiratuz, Beasainen, adibidez, plurala nagusiki *-aieta -eire*kin egiten da (Agirrebeña, Alberdi, Mendiguren eta Sarasua 2007: 40). Zaldibia inguruan ere *-ai*plurala aurkitzen dugu, baina kasu hauetan, singularra eta plurala bereizteko azentua erabiltzen da: *neskáí* singularra eta *néskaí*plurala (Etxabe eta Garmendia 2003: 62). Honekin batera, Gipuzkoan ere baina mendebaleko euskararen barnean, Deba Ibarreko herri batzuetan *-erida* datibo pluralaren forma, adibidez, Elgoibarren (Makazaga 2009: 79) eta Eibarren (Sarasua, Agirrebeña and Zenarruzabeitia 2005: 128).

Mendebaleko euskalkiarekin jarraitzen badugu, *-eri* Bizkaian ere topa dezakegu, erraterako, Basaurin (Arretxe 1994: 88) edo Gernikan (Hualde eta Ortiz de Urbina 2003: 181). Gernikakoa da Hualdek eta Ortiz de Urbinak (2003: 181) ematen duten lekukotasun hau:

(7) Lau gixoneri

Horrez gain, nabarmentzekoa da Lekeition datibo plurala singularra bezala egiten dela: *-ari* (Arregi eta Nevins 2012: 27). Hain zuzen, singularra eta plurala desberdintzeko azentua erabiltzen dute bertako hiztunek: *gixonari* singularra eta *gixonári* plurala (Hualde, Elordieta eta Elordieta 1994: 88).

Datu-basearen emaitzak

Datu-baseari dagokionez, askotariko emaitzak lortu ditugulaguneri eman dieterantzunarekin. Mendebaleko elkarrizketatuek, hain zuzen, Arteakoek, Elgoibarkoek, Gernikakoek eta Loiukoek erraterako, bai erabiltzen dute aldaera hau, orain arte aipatutakoarekin bat eginez. Dena den, badira mendebaleko hiztun batzuk *-e*erabiltzen dutenak: Aramaion, Bergaran eta Otxandion. Bertzalde, erdialdean, elkarrizketatu bakar batek ere ez du *-er*morfema erabiltzen datibo plurala egiteko. Adibidez, Beizaman, Hernanin eta Itsasondon.

Nafarroarekin jarraituz, mendebaleko euskalkiaren antzeko egoera lortu dugu, batzuek *-er*idarabilten arren (Goizuetan eta Urdiainen), Baztan inguruan, Arbizun eta Erroibar eskualdean ez. Aldaera honekin bukatzeko, nafar-lapurteraz aritzen diren inkestatu guztiek *-er*erabiltzen dute: Oragarren eta Ziburun. Bertze formari dagokionez, orain arte aipatutakoa kontuan hartuz,

Aipamenak

- Agirrebeña, Aintzane, Itziar Alberdi, Xabier Mendiguren and Asier Sarasua. 2007. *Beasaingo euskara. Herriko hizkeraren azterketa eta ahozko ondarearen bilketa*. Beasain: Beasaingo Udala
- Arregi, Karlos and Andrew Nevins. 2012. *Morphotactics: Basque auxiliaries and the structure of Spellout*. Dordrecht: Springer.
- Arretxe, Jon. 1994. *Basauriko euskara*. Basauri: Basauriko Udala.
- Camino, Iñaki. 1999. «Goñerriko hizkera I» *ASJU* 33:1, 5-78.
- Camino, Iñaki. 2004b. «Nafarroa Behereko euskara» *FLV* 36: 97, 445-486.
- Camino, Iñaki. 2020. *Aztergaiak Ipar Euskal Herriko euskararen berrikuntzez*. Leioa: UPV/EHU.
- Epelde, Irantzu. 2004a. «Lapurdikoko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz» *FLV*, 36, 96. 271-304.
- Epelde, Irantzu. 2004b. *Larresoroko azterketa. Dialektologia azterketa*. Ph.D. Diss., UPV/EHU.
- Ettxabe, Karnele and Larratiz Garmendia. 2003. *Zaldibiako euskara*. Zaldibia: Zaldibiako Udala.
- Hualde, José Ignacio and Jon Ortiz de Urbina (eds.). 2003. *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Hualde, José Ignacio, Gorka Elordieta and Arantzazu Elordieta. 1994. *The Basque dialect of Lekeitio*. Bilbo and Donostia: PV/EHU and Gipuzkoako Foru Aldundia. Supplements of the *International Journal of Basque Philology ASJU* 34.
- Makazaga, Jesus Mari. 2009. *Elgoibarko euskara*. Ph.D. diss., UPV/EHU.
- Sagarzazu, Txomin. 2005. *Hondarribiko eta Irungo euskara*. Irun: Alberdania
- Sarasua, Asier, Aintzane Agirrebeña and Leire Zenarruzabeitia. 2005. *Eibarko euskara. Gure hizketaren doinu eta berbak*. Eibar: Eibarko Udala.
- Zuazo, Koldo. 2010. *Sakanako euskara. Burundako hizkera*. Iruña: Nafarroako Gobernua; Bilbo: Euskaltzaindia.
- Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

i.21. Aditz-izenaren osagarria genitiboan: *ogiaren eroatera (v ogia eroatera)*

Egilea: Irati Huarte

Nola aipatu: Huarte, Irati. (2022). Aditz-izenaren osagarria genitiboan: *ogiaren eroatera (v ogia eroatera)*. In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariantan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=57&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

absolutiboa, genitiboa, kasua, nominalizazioa

Deskribapena

Euskara batuan eta euskalki gehienetan, aditz-izen iragankorraren osagarriari absolutibo kasu-marka ezartzen zaio aditz jokatuetakoko osagarriarekin egiten den bezala:

(1)	Ogia	erostera	joan	da
	ogia.ABS	eros.NMLZ.ALL	joan.PTCP	3ABS.izan

Iparaldeko hizkera batzuetan, ordea, TOGen izenarekin ezagututako fenomenoak gertatzen da, aditz-izenaren osagarriari (TO) genitiboa (Gen) ezartzen zaio absolutiboaren ordeztuz:

(2)	Ogiaren	erostera	joan	da
	ogia.GEN	eros.NMLZ.ALL	joan.PTCP	3ABS.izan

Banaketa dialektala

Gaur egun, fenomeno hau ipar-ekialdeko euskalkietan gertatzen da, hain zuzen, lapurteraz, behe-nafarreraz eta zubereraz (Heath 1972: 48). Epeldek (2004b: 674), adibidez, Larresoroko euskaldun baten lekukotasuna biltzen du:

(3)	Ez ginuen dretxoik atxikitzeke bei oien 'Ez genuen eskubiderik behi horiek edukitzeke'
-----	---

Hona hemen nik jasotako Baigorriko emakume baten lekukotasuna ere:

(4)	Mendian eta... hunen egiterat 'Mendian eta... hau egitera'
-----	---

Zuazok (2014: 244) azaltzen duenez, genitiboaren erabilera hori lehen Euskal Herri osoko ezaugarria zen baina denborarekin mendebalean eta erdialdean absolutiboa nagusitu da. Azken urteetan, gainera, absolutiboa gehiago zabaldu da Hego Euskal Herrian zehar (Zuazo 2014: 244). Baztanen, erraterako, antzina aditz-izenaren osagarria genitiboz markatzen zen arren, egun absolutiboa erabiltzen da batez ere (Zuazo 2014: 244).

Datu-basearen emaitzak

Datu-baseko emaitzei dagokienez, ez dute bete-betean bat egiten Zuazok (2014: 244) dioenarekin. Izan ere, Nafarroan, eta zehatzago, Baztanen, bai lekukotzen da fenomeno hau Arizkungo herrian. Baztanez gain, Nafarroako bertze eskualde batzuetan ere lekukotzen da, Mezkiritz eta Orbaizeta herrietan, erraterako. Dena den, Zuazorekin (2014: 244) bat eginez, inkestatuetako bertze nafar guztiek absolutiboa erabiltzen dute genitiboaren ordez: Goizuetan, Arbizun eta Urdiainen.

Horrez gain, nafar-lapurteraz hitz egiten duten herrietan lekukotzen da, Oragarre eta Ziburun, baita Zuberoko Urdiñarbe herrian ere. Azkenik, espero genuen bezala, erdialdeko eta mendebaleko inkestatu guztiek absolutiboa darabilte.

Eztabaida teorikoa

Fenomeno hau ez da aditz-izen iragankorrek dauden kasu guztietan gertatzen. Adibidez, Artiagoitiak (2003: 678) azaltzen du aditz-izena *-tzenegitura* baten barnean dagoenean ez dela beti TOGen ematen. Ikus ditzagun adibideak:

(5) Peio artoa / artoaren jorratzen ari da.

Kasu honetan, *-tzenegituraari izanaditzaren* osagarria da eta TOGen fenomeno gerta daiteke. Hurrengo adibidean, ordea, *-tzenegitura* aditz laguntzaile baten osagarria denean, absolutiboa da aukera bakarra:

(6) Peiok artoa /* artoaren jorratzen du.

Horrez gain, nafar-lapurteraz eta zubereraz fenomeno honen erabileran desberdintasunak daude. Nafar-lapurteraz, erraterako, aditz-izena *-anlokatiboarekin* edo *-arekin* komitatiboarekin batera agertzen bada osagarria ezin da genitiboan egon (Heath 1972: 59). Lafitteren (1944 [1979]) lanean adibide hauek ikus ditzakegu:

(7a) hura ikhustean

(7b) hura ikhustearekin

Zubereraren kasuan, aldiz, Heathek (1972: 64) Haritschelharren (1970, apud Heath 1972) eta Gèzen (1875, apud Heath 1972) TOGenaren lekukotasunak biltzen ditu:

(8a) haren ikhoustian

(8b) haren ikhoustiareki

Fenomenoaren sorreraren inguruan ere iritzi kontrajarriak daude. Batetik, Zuazok (2014: 244) dio antzina Euskal Herri osoan lekukotzen zela eta gerora TOGenaren erabileraren eremua murriztu joan dela egun arte. Bertzetik, Heathek (1972: 66) uste du Euskal Herriko arkaismoa baino Iparraldeko berrikuntza izan daitekeela.

Aipamenak

- Artiagoitia, Xabier. 2003. «Complementation (noun clauses)». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 634-711.
- Epelde, Irantzu. 2004b. *Larresoroko azterketa. Dialektologia azterketa*. Ph.D. Diss., UPV/EHU.
- Heath, Jeffrey, 1972. «Genitivization in northern Basque complement clauses» *International Journal of Basque Linguistics and Philology (ASJU)* VI, 46-66.
- Lafitte, Pierre. 1944. *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Baiona: Librairie Le Livre. [Reprinted in 1979. Donostia: Elkar]
- Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

i.22. Partitiboa enfasia adierazteko perpaus existentzialetan: *badugu sagar onik (v baditugu sagar onak)*

Egilea: Kristina Bilbao

Nola aipatu: Bilbao, Kristina. (2022). Partitiboa enfasia adierazteko perpaus existentzialetan: *badugu sagar onik (v baditugu sagar onak)*. In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=63&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

kasua, partitiboa

Deskribapena

Baiezko perpaus enfatikoetan, absolutiboa hartu ohi dute izen sintagmek, adjektiboa eraman (1a) zein ez (1b).

(1a) Baditugu

sagar onak

	BA.(3ABS).PL.edun.1PL.ERG	sagar	on.PL.ABS
(1b)	Baditugu	sagarrak	
	BA.(3ABS).PL.edun.1PL.ERG	sagar.PL.ABS	

Zenbait hizkeratan, baiezko perpausetako izen sintagmak partitiboaz marka daitezke enfasia adierazteko (Euskaltzaindia 1985 [1991]: 277). Perpaus hauek irakurketa existentziala dute, aditzaren absolutibo komunztadura singularrak erakusten duen bezala (Trask 2003: 125). Badirudi bereziki izen sintagmak adjektiboa hartzen duenean dela posible baiezko perpausetako izen sintagmak partitiboz markatzea (de Rijk 1972: 166-167; Trask 2003: 125).

(2)	Badugu	sagar	onik
	BA.(3ABS).edun.1PL.ERG	sagar	on.PRTV

Banaketa dialektala

De Rijkek (1972: 166) dioenez, baiezko perpaus existentzialetan partitiboa agertzea Iparraldeko hizkeren ezaugarria da, hots, nafar-lapurteraz eta zubereraz aurki daitekeena. Hain zuzen ere, Lafittek (1944 [1979]) nafar-lapurteraren gramatikan ezaugarri honen berri ematen du.

Aldiz, de Rijkek (1972: 166) Gipuzkoako eta Bizkaiko hizkeretan ez dela (2)-koa bezalakorik aipatzen du; Nafarroako hizkerez, aldiz, ez duela datu nahikorik ondoriorik ateratzeko.

Hala ere, herri hizkeren gramatiketara joz gero, Eibarko euskararen Sarasua, Agirrebeña eta Zenarruzabeitiak (2005: 132) jaso dituzte partitibodun baiezko perpausak, balio enfatikoarekin. Beraz, badirudi Hegoaldeko hizkera batzuetan ere badela ezaugarri honen berri. Are gehiago, adjektiborik gabeko izen sintagmak dira jaso dituzten bi adibideak (ikus "Eztabaida teorikoa" atala):

(3a)	Gero, gaiñera, baekan hor senitartekorik Kuban
(3b)	Sekula holako umerik!

Datu-basearen emaitzak

Datu-basean (2)-ko perpausaz galdetu ostean jaso ditugun emaitzak ez datoz bat oro har aurreko atalean deskribatzen den banaketa dialektalarekin.

Hasteko, de Rijkek (1972) Iparraldeko hizkeren ezaugarritzat hartzen du aztergai dugun ezaugarria. Datu-baseko emaitzetan, Zuberoako Urđiñarbeko hizkeran lekukotu da (2)-ko hizkera erdua. Aldiz, ez da lekukotu nafar-lapurteraz (Oragarre), Lafittek (1944 [1979]) nafar-lapurteraren ezaugarritzat jaso arren. Nafarroako hizkeretan ere ez da lekukotu, Goizuetan izan ezik, hots, Gipuzkoarekin mugan.

Aldiz, de Rijkek (1972) aurreikusitakoaren aurka, mendebaleko eta erdialdeko hainbat hizkeratan jaso

da hizkera eredu hau. Horren adibide dira Getxo, Loiu, Gernika-Lumo, Artea eta Aramaio mendebalean; Itsasondo, Beizama eta Hernani erdialdeko euskalkian.

Dena den, mendebaleko euskalki batzuetan ez da ezaugarri hau jaso, hala nola Mungia, Lekeitio, Elgoibar eta Bergaran. Beraz, azken bi hizkera hauek Deba ibarrekoak izanda ere, Eibarko euskara bezala, Elgoibarren eta Bergaran ez da Sarasua, Agirrebeña eta Zenarruzabeitiak (2005) jasotako adibideak bezalakorik lekukotu (3).

Erdialdeko hizkeren artean Errenteriako euskara da ezaugarri hau lekukotzen ez duen bakarra. Hain zuzen ere, de Rijk (1972) Mitxelenaren Errenteriako euskara adibide bezala dakar, hizkera honetan ez baita baiezeko perpausetan adjektibo hutsa partitiboarekin erabiltzen. Alabaina, badirudi Mitxelenaren hizkeran onargarriak direla beste mota bateko egiturak (ikus "Eztabaida teorikoa" atala, (5) eta (6) adibideak).

Eztabaida teorikoa

Gorago aipatu bezala, partitiboa izen sintagmak adjektiboa hartzen duen perpaus existentzialetan agertu ohi da (2). Esate baterako, Lafitten (1944 [1979]: 74) eta de Rijken (1972: 166-167) arabera, lapurteraz adjektibodun izen sintagmak soilik marka daitezke partitiboz (4); adjektibo gabeak absolutiboz baino ez dira onargarri (1b):

(4)	*Badugu	sagarrik
	BA.(3ABS).edun.1PL.ERG	sagar.PRTV

Alabaina, lehen aipatu dugu Eibarko euskararen adjektibo gabeko izen sintagmekin jaso direla partitibodun adibideak (Sarasua, Agirrebeña eta Zenarruzabeitia 2005: 132). Trasken (2003: 126) ere adjektibo gabeko izen sintagma partitibo bat dakar, Errenteriako hiztuna zen Mitxelenarena:

(5)	Baluke	meremizendurik	liburu	honen	egileak	(Trask
	BA.(3ABS).edun.3ERG	meremizendu.PRTV	liburu	hau.GEN	egile.ERG	2003: 126)

Bestalde, adjektiboak *-ago konparaziozko markagailua* (Vela-Plo 2020) hartzen duenean ere partitiboz marka daiteke izen sintagma hainbat hizkeratan (de Rijk 1972: 167). De Rijken (1972) arabera, hizkera batzuetan ez dira posible (2)-koa bezalako perpausak, non adjektibo hutsak jasotzen duen partitibo marka, bai ordea (6) bezalakoak, *-ago* markagailudunak alegia. De Rijk (1972) dioenez, hizkera horiek Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugakoak dira. Zehazki, (6)-eko adibidea Mitxelena errenteriarrarena da (de Rijk 1972: 167):

(6)	Erabaki gogorragorik hartu beharrean aurkitu ziren bai Cesar Rubicon ibaia igarotzerakoan eta bai Cortés ontziak zulatu aurrean
-----	---

Aipamenak

- de Rijk, Rudolf P.G. 1972. «Partitive assignment in Basque» *International Journal of Basque Philology (ASJU)*, VI: 130-73.
- Euskaltzaindia. 1985. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1991]
- Lafitte, Pierre. 1944. *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Baiona: Librairie Le Livre. [Reprinted in 1979. Donostia: Elkar]
- Sarasua, Asier, Aintzane Agirrebeña and Leire Zenarruzabeitia. 2005. *Eibarko euskara. Gure hizketaren doinu eta berbak*. Eibar: Eibarko Udala.
- Trask, Larry. 2003. «The Noun Phrase: nouns, determiners and modifiers; pronouns and names» In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 113-167.
- Vela-Plo, Laura. 2020. *Drawing comparisons: A syntactic and semantic approach to Basque, Spanish and English inequality comparative structures*. Ph.D. Diss., UPV/EHU.

i.23. Alokutiboa eta tratamenduak: hiketa, xuketa eta zuketa

Egilea: Cecilia Fernández

Nola aipatu: Fernández, Cecilia. (2022). Alokutiboa eta tratamenduak: hiketa, xuketa eta zuketa. In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=70&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aditz laguntzaile alternantzia, alokutiboak, bigarren pertsona, bokatiiboak, familiarteko eta ez-familiartekoa, femeninoa, maskulinoa, mintzakidea, tratamendua

Deskribapena

Ezaguna denez, euskaraz aditzak morfologia oso aberatsa du, perpauseko hiru argumenturekin komunztadura egin dezake-eta. Hala, aditz jokatuak predikatuko argumentuei dagokien ergatibo, absolutibo eta datibo komunztadura erakuts dezake, (1) adibidean bezala:

(1) Zuk	niri
2NONFAM.ERG	ni.DAT

liburua
liburua.ABS

ekarri	didazu
ekar.PTCP	(3ABS).edun.APPL.1SG.DAT.2NONFAM.ERG

Jakina, perpausean zenbat argumentu ageri diren, horrenbesterekin komunztadura egiten du aditzak. Horrela, argumentu bakarreko perpausean, aditzak argumentu horri dagokion kasuarekin baino ez du komunztadura egingo, (2) adibidean ikus daitekeen moduan:

(2)	Aita	joan	da
	aita.ABS	joan	(3ABS).izan

Hizkera erdua 1. Dena dela, badira komunztadura aukera gehiago ere. Zenbait hizkeratan, mintzakideari dagokion alokutibo komunztadura ere ager daiteke aditz jokatuan. Kasu hauetan, aditzak bigarren pertsonako morfologia hartzen du, (3b) adibidean bezala. Azpimarragarria da *hiketa* erabiltzen duten hizkeretan, komunztadura morfema hau (-*k/-n* edo -*a/-na*-) eta familiarreko bigarren pertsonako ergatibo (eta datibo) morfemak homofonoak direla, (3b) adibidea (3a)rekin alderatzerakoan ikusten denez:

(3a)	Hik	liburua	ekarri	duk/n
	2FAM.ERG	liburua.ABS	ekar.PTCP	(3ABS).edun.2FAM.ERG.M/F
(3b)	Jon	etorri	duk/n	
	Jon.ABS	etor.PTCP	(3ABS).edun.ALLO.M/F	

Hala, (3b) adibidean, -*k/-n* morfemak ez du komunztadurarik egiten perpausean ageri den ezein argumenturekin, mintzakidearekin baizik, eta horregatik, mintzakideari egozten zaion genero gramatikalaren arabera (maskulinoa edo femeninoa) ezartzen da morfema bat edo bestea aditzean. Aldiz, (3a) adibidean, aditzeko 2. pertsonako komunztadura (-*k/-n*) argumentu bati dagokio, hain zuzen, subjektu ergatiboari (*hik*). Horrela, aditzeko morfemaren genero komunztadura ere argumentu honi egozten zaion generoari dagokio.

Azpi hizkera erdua 1. Aipagarria da erdialdeko zenbait hizkeratan, alokutibo komunztadura adierazten duen morfemaren aurretik -*txi*- morfema gehigarri bat ageri dela. Zuazok (2013: 99) deskribatutakoaren arabera, morfema hau (berak -*tx*- bezala identifikatzen duena) bereziki lehenaldiko absolutibo-ergatibo eta absolutibo-datibo-ergatibo komunztadurako aditz laguntzaileetan eta aditz sintetikoetan aurkitu ohi da:

(4a)	nago	
	1SG.ABS.egon	
(4b)	natxiok/n	(Zuazo 2013: 99)
	1SG.ABS.egon.ALLO.M/F	

Hizkera erdua 2. Bestalde, alokutiboa ez da beti familiarreko 2. pertsonako morfemaren bidez adierazten. Badira hizkerak non *zuketako* alokutibo komunztadura agertzen den aditz jokatuan. Hizkera hauetan morfema alokutiboa eta ergatiboko (eta datiboko) 2. pertsonako morfema ez-familiarrekoa (-*zu*) homofonoak dira, (5a) eta (5b) adibideak konparatzerakoan ikusten den bezala.

Agerikoa denez, morfema honek ez du genero bereizketarik adierazten:

(5a)	Aita	joan	duzu	
	aita	joan.PTCP	(3ABS).edun.2ALLO	
(5b)	Zuk	etxea	erosi	duzu
	Zu.ERG	etxea.ABS	erosi.PTCP	(3ABS).edun.2NONFAM.ERG

Berriz ere, goiko (5a) adibidean aditzak ageri duen bigarren pertsonako morfema ez dagokio perpauseko argumentu bati, mintzakideari baizik –(5b) adibidean ez bezala.

Hizkera eredua 3. Azkenik esan behar da, beste zenbait hizkeratan, genero bereizketarik gabeko *xukako* tratamendua erabiltzen dela. Eredua aurreko kasuko bera da, beraz, mintzakideari dagokion alokutibo komunztadura aditz jokatuan ager daiteke eta komunztadura hau *-xu* morfemaren bidez adierazten da:

(6)	Aita	joan	duxu	
	aita	joan.PTCP	(3ABS).edun.2ALLO	

Dena dela, *xukako* tratamenduak ez du beti alokutibotasuna barne hartzen. Izan ere, hizkera batzuetan, alokutiboa ez den *-xu* tratamendua baino ez da erabiltzen, hots, *-xu* morfema perpauseko argumentu batekin komunztadura egiteko erabiltzen da soilik (7) adibidean bezala, eta ez mintzakidea adierazteko (6) adibidean bezala:

(7)	Aita	ikusi	duxu	
	aita	ikus.PTCP	(3ABS).edun.2ERG	

Oharrak:

1 *-tx-* baino, morfema *-txi-* dela ematen du (adb. *Nabilek>natxibilek* ematen du Zuazok).

Banaketa dialektala

Oro har, sarritan dokumentatzen da hiketaren galera edo atzerakada hainbat hizkeratan. Honek ondorioz dakar hiztunek hiketako adizkiak ez jakitea, gutxi batzuk bakarrik erabiltzea edo intuiziorik ez izatea alokutiboan osatutako perpausen gramatikaltasunaz. Honen berri ematen dute, besteak beste, Arretzek (1994: 224-225) Basauriko euskararako, Hualde et al.-ek (1994: 134-135) Lekeitioko hizkerarako, Agirretxe eta Esnaolak (2000: 107) Lezoko euskararako, Zuazok (2010: 163) Burundarako, Salaburu eta Lakarrek (2005: 90) Baztaneko hizkeretarako edo Epeldek (2004a: 295) Lapurdiko hego-ekialdeko hizkeretarako.

Ikusten denez, hiketaren galera lurralde osoan zabaltzen doan joera da. Hala ere, Alberdik (1996) deskribatzen duenaren arabera, hiketaren galera bereziki nabarmena izan da Bizkaiko itsasaldeko herrietan, non ia ez den erabiltzen. Bizkaiko barrualdean zerbait indartsuago dago (Markina aldean, Durangaldean, Arratian, Orozko aldean, Zeberion, Otxandion). Gipuzkoako mendebaldeko hizkeretan ere osasuntsu mantendu da oraintsu arte.

Euskalki guztietan, gainera, galera nabarmenena *noketari* (hiketa femeninoari) gagozkiola gertatu da. Alberdiren (1996: 299) arabera, noketako tratamenduari erdialdeko hizkeretan eta iparraldeko goi nafarreraz eutsi zaio hoberen.

Bestalde, esan den bezala, zuketa eta xuketa ekialdeari dagozkion tratamenduak dira. Bonaparte printzeak (1869) jada zehaztu zuen bezala, zuketa zubererari eta ekialdeko behe-nafarrerari dagozkio. Alberdiren arabera (1996: 312-313), hala ere, tratamendu hau galtzen ari da behe-nafarreraz, berak ez baitzuen jaso Donibane-Garazi inguruan. Xuketa alokutiboa, bestalde, ekialdeko behe-nafarreraz (eta zaraitzueraz) aurkitzen da eskuarki, eta oso gutxi zubereraz (Aiñharbe aipatzen du Alberdik). Mendebaldeko behe-nafarreraz ere, Alberdik Luzaiden, Arnegin eta Lasan lekukotu zuen (1996: 318). Epeldek (2004a: 295) Lekuinen, Lekornen, Makean eta Hazparden xuketa ez-alokutiboa lekukotzen du.

Aditzen morfologiari gagozkiola, aurreko atalean aipatu dugu hiketako alokutiboaren fenomenoak orokorra den arren, hiketako adizkiek hartzen duten forma nahiko aldatzen dela hizkera batetik bestera. Gehiegi sakondu gabe, zenbait hizkeratan aurkitzen diren berezitasunak aipatuko ditugu segidan.

Mendebaleko hizkeretan, adizki bukaerako femeninoko morfema *-na* da (ez *-n*), hau da, hitz-tartekoaren berdina. Horrekin batera, mendebaleko zenbait hizkeretan, aditz intransitiboetako eta ditransitiboetako orainaldiko komunztadura absolutiboa 3.pertsonakoa denean, intrantsitiboko *d* - morfemaren (*joan duk*) edo ditransitiboko *z*- txistukariaren ordeztan (*eman zidak/n*), *j*- erako sabaikariak eta belarrak aurkitzen ditugu (hizkeraren arabera, /y/, /ʔ/, /dʔʔ/, /x/ etab. bezala gauzatzen direnak): *joan jok*, *emon jonak/n* (Zuazo 2013: 49-50). Burundan ere belokoa aurkitzen dugu zenbait adizkitan *d*-ren ordeztan: *jituk/jitin* (aditz batuan *dizkiak/dizkinan*), eta baita *z*-ren ordeztan ere adizki trinko batzuetan: *jukat/jukanat* (batuaz *zaukaat/zaukanat*) (Zuazo 2010: 164). Aditz trinko iragangaitzetan ere *d*-ren ordeztan *j*- aurkitzen dugu mendebaleko zenbait hizkeretan: *yabik*, *yabillek* (ikus, adibidez, Gaminde 1988), baina ez Eibar, Soraluze, Ermua eta Elgoibarren non *dabik* esaten den (Sarasua et al. 2005: 239).

Hualde et al.-ek (2003: 245-246) aipatzen dute zenbait hizkeretan *-i*- morfema bat tartekatuta ohi dela alokutiboko formetan: *niagok* (<*nagok*). Era berean, mendebaleko zenbait hizkeretan *-j* - morfema bat aurkitzen dugu tartekatuta absolutibo-ergatibo komunztadurako aditzetan. Morfema hau absolutiboko pertsona komunztaduraren ondoren ageri da: *nekian* > *najekixan* (Eibarko hizkera, Sarasua et al. 2005: 238). Ostera, goian aipatu dugun moduan, erdialdeko zenbait hizkeretan (Beterri eta Urolakoetan eskuarki, Zuazo 2013: 99) *-txi*- morfema bat aurkitzen dugu, berriz ere, absolutiboko pertsona komunztaduraren ondoren.

Datu-basearen emaitzak

Hiketaren erabilera, erregistro eta testuinguru batzuetara murrizten den arren, geografikoki euskararen eremu osoari dagokio. Horregatik, datu-base honetan jaso ditugun ia erantzun guztiek baiezkoa eman

dute (3a) eta (3b) eredurako. Erantzun hauen arabera, hiketa bai erabilera alokutiboan zein ez-alokutiboan erabiltzen da hizkera hauetan guztietan. Gernikan baino ez da ezezko erantzuna jaso, ziurrenik, eremu honetako hizkeretan hiketako tratamenduak atzerapen nabarmena jasan duelako erabilerari dagokionez (ikus Alberdi 1996: 298 eta berak aipatzen duen Yrizar 1981: 375-380).

Bestalde, *-tx-* morfema tartekatzea erdialdeko hizkera batzuei dagokien fenomeno mugatua da. Hala ere, Zuazok (2013: 99) ezaugarri honen jatorria Beterrin ezartzen duen arren, eremu zabalagoa hartu duela ematen du, baiezko erantzuna jaso baitugu (4b) eredurako Azpeitian, Itsasondon, Beizaman, Hernanin eta Irunen. Ezezkoa eman dute, aldiz, erdialdeko hizkerak ere badiren Erreterriako eta Etxalekuko hizkeretan.

Zuketari dagokionez, ipar-ekialdeari dagokion tratamendua dela ikusten dugu. Zuketaren erabilera alokutiboa (5a), Oragarreko eta Urdiñarbeko hizkeretan lekukotu da datu-base honetan, hots, ekialdeko nafar-lapurteraz eta zubereraz.

Halaber, xuketa ere ipar-ekialdean aurkitzen da. Xuketaren erabilera alokutiboa zein ez-alokutiboa Oragarren baino ez dugu lekukotu gure datu-basean, ekialdeko nafar-lapurteraz beraz.

Eztabaida teorikoa

Euskarazko gramatiketan adierazten denez (Hualde et al. 2003: 242; de Rijk 2008: 809), alokutiboaren erabilera derrigorrezkoa da bigarren pertsonako lagunarteko hizkeran, hau da, *hiketa*, erabili nahi bada. Mintzakideari genero maskulinoa ezartzen bazaio *-kedo -a-* morfema gehitu beharko zaio adizkiari; genero femeninoa ematen bazaio, ordea, *-nedo -na-*.

EGLU II In Euskaltzaindiak (1987 [1997]: 388) zehazten du hiketako tratamenduaz gain, ekialdeko hizkeretan *zuketa* eta *xuketako* tratamendua ere erabiltzen dela. Hauek ere erabilera alokutiboa daukate eta hiketako alokutiboen modu bertsuan jokatzen dute. Hala ere, zuketarako alokutiboa erabiltzea ez da derrigorrezkoa, ekialdeko zenbait hizkeratan izan ezik. Halaber, badira hizkerak non xuketa ez-alokutiboa erabiltzen den.

Bestalde hiketaren eta zuketaren arteko desberdintasuna erregistro aldekoa ere bada: hiketa lagunarteko erregistroko erabiltzen da eta zuketa, ordea, erregistro neutro eta formaletarako. Dena dela, erregistroari buruzko ñabardurak aldatu egiten dira hizkera batetik bestera, eta hizkera batzuetan hiketa nahiko ohikoa bada ere, beste batzuetan oso familiarrekotzat hartzen da. Xuketari, bestalde, balio afektiboa erantsi ohi zaio hau erabiltzen duten hizkeretan (Euskaltzaindia 1987 [1997]: 389-390; Alberdi 1996).

Hualde et al.-ek (2003: 243) azpimarratzen dute informazio egiturari dagokionez, alokutibodun perpausak ez direla desberdintzen ezertan ere alokutibo gabeko perpausetatik. Hala, nahiz eta mintzakideari egindako erreferentzia gramatikalki gauzatzen den, honek ez du esan nahi adierazitako ebentuat mintzakideari eragiten edo interesatzen dionik. Ez da, beraz, alokutibotasunaren fenomenoa *datibo etiko* deitu izan denarekin nahastu behar (Oyharçabal 1993; De Rijk 2008: 810).

Morfologiaren aldetik, adizki alokutiboak sortzerakoan hizkeren artean nahiko alde daudela agerikoa da, nahiz alokutibotasunaren fenomenoa bera hizkera guztietan aurkitzen dugun. Oro har, forma alokutiboak forma ez-alokutiboetatik eratortzen dira, baina salbuespenak ere badira. Orokorrean, zera esan daiteke forma alokutiboak eratortzeko moduz (de Rijk 2008; Hualde et al. 2003):

- Hiketako morfema alokutiboa hitz bukaeran ageri denean *-k* bezala gauzatzen da maskulinorako eta *-n* bezala femeninorako. Adizkiaren tarteko posizio batean ageri denean ordea *-a-* gisa maskulinorako eta *-na-* gisa femeninorako.

- Aditz-erroa kontsonantez bukatzen bada, beste adizki batzuetan ere ohikoa denez, *-e-* epentetikoaren bitartez txertatzen da *-k* edo *-n* morfema: *nator* > *natorrek/n*.

- *Izan* erroko orainaldiko formak **edun* erroko formekin ordezkatzeko dira, eta hala ergatibo/datiboko bigarren pertsona familiarreko morfema azaleratzen da: *etorri naiz* > *etorri nauk/n*

- *Izan* erroko lehenaldiko formak ere **edun* erroko formekin ordezkatu ohi dira hizkera gehienetan, baina ekialdeko hizkeretan eta euskara batuan forma desberdinak ematen dituzte hirugarren pertsonan: *etorri zen* > *etorri zu(n)an* (vs. *zuen*).

- Ahalerazko forma alokutiboetan **edin* erroko aditzak bere horretan mantentzen dira: *naiteke* > *naitekek/n*.

- Absolutibo-datibo komuntadurako *izan* erroaren forma alokutiboan *-a-* aurkitzen dugu tartekatuta adizkia eta *-k/-n* morfemaren artean: *gustatzen zait* > *zaidak/n*.

- Absolutibo-ergatibo komuntadurako **edun* erroko formak ditransitiboko erroarekin ordezkatzeko dira absolutiboko argumentua hirugarren pertsonakoa denean: *edan du* > *edan dik/n*, *ikusi dut* > *ikusi di(n)at*.

- Forma ditransitiboetan *-a/-k* edo *-na/-n* morfemak gehitzen dira, laugarren indize bezala, eta 3. pertsonako *d-* morfemaren ordez *z-* ageri da: *esan diot* > *esan zioat/zionat*, *eman dit* > *eman zidak/n*.

Aipamenak

Agirre, Eñaut. 2016. *Ƒxe* morfema, erdialdeko hizkeretako alokutiboetan (Errezilko kasua)». handout, Euskal Dialektologia Mintegia, UPV/EHU.

Agirretxe, Jose Luix and Imanol Esnaola. 2000. *Lezoko euskararen azterketa*. Lezo: Lezoko Udala.

Aizpurua, Ainhoa. 2016. «Aditz jokatuetakoa *a/-e* bokalen aurkakotasunaz bi hitz». handout, Euskal Dialektologia Mintegia, UPV/EHU.

Alberdi, Xabier. 1995. «The development of the Basque System of terms of address and the allocutive conjugation». In Jose Ignacio Hualde, Joseba A. Lakarra and Robert L. Trask (eds.), *Towards a history of the Basque language*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 275-295.

Alberdi, Xabier. 1996. *Euskararen tratamenduak: erabilera*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Arretxe, Jon. 1994. *Basauriko euskara*. Basauri: Basauriko Udala.

Bonaparte, Louis Lucien. 1869. *Le verbe basque en tableaux, accompagné de notes grammaticales, selon les huit dialectes de l'euskara*. Londres: Strageways and Walden. [Reprinted in 1992. *Opera Omnia Vasconice*

- . Bilbo: Euskaltzaindia]
- de Rijk, Rudolf P.G.. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): MIT Press.
- Epelde, Irantzu. 2004a. «Lapurdiko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz» *FLV*, 36, 96. 271-304.
- Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1997]
- Gaminde, Iñaki. 1988. «Bizkaiko aditz trinkoen alokutiboak (orain aldia)» *FLV*, 52. 181-240.
- Haddican, Bill. 2015. «A note on Basque vocative clitics». In Beatriz Fernández and Pello Salaburu (eds.), *Ibon Sarasola Gorazarre. Homenatge, Homenaje*. UPV/EHU. 303-317.
- Haddican, Bill. 2018. «The syntax of Basque allocutive clitics» *Glossa: a journal of general linguistics*, 3(1), 101.
- Hualde, José Ignacio and Jon Ortiz de Urbina (eds.). 2003. *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Hualde, José Ignacio, Gorka Elordieta and Arantzazu Elordieta. 1994. *The Basque dialect of Lekeitio*. Bilbo and Donostia: PV/EHU and Gipuzkoako Foru Aldundia. Supplements of the *International Journal of Basque Philology ASJU* 34.
- Oyharçabal, Beñat. 1993. «Verb Agreement with Non Arguments: On Allocutive Agreement». In Jose Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *Generative Studies in Basque Syntax*. Amsterdam: John Benjamins. 89-114.
- Rebuschi, Georgés. 1984. *Structure de l'énoncé en basque*. Paris: SELAF.
- Salaburu, Pello and Maite Lakar. 2005. *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Iruñea: Nafarroako Gobernu & Euskaltzaindia.
- Sarasua, Asier, Aintzane Agirrebeña and Leire Zenarruzabeitia. 2005. *Eibarko euskara. Gure hizketaren doinu eta berbak*. Eibar: Eibarko Udala.
- Yrizar, Pedro. 1981. *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* (2 liburuki). Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa.
- Zuazo, Koldo. 2010. *Sakanako euskara. Burundako hizkera*. Iruña: Nafarroako Gobernu; Bilbo: Euskaltzaindia.
- Zuazo, Koldo. 2013. *The dialects of Basque*. Reno: University of Nevada.

i.24. Alokutiboa adierazpen perpausetatik at:

di(n)ala (v duela)

Egilea: Cecilia Fernández

Nola aipatu: Fernández, Cecilia. (2022). Alokutiboa adierazpen perpausetatik at: *di(n)ala (v duela)*. In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=1&e=68&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

alokutiboak, menderakuntza

Deskribapena

Eredu orokorra. Zenbait hizkeratan, eta eredu estandarrean, forma alokutiboak perpaus nagusietan agertzen dira, ez aldiz menpeko perpausetan. Bestalde, perpaus nagusien artean, adierazpen perpausetan azaltzen dira, (1) adibidean bezala:

(1)	Eguraldi	ona		egingo
	eguraldi	ona		egingo
	pentsatzen	dinat /		diat
	pentsa.IPFV	(3ABS).edun.APPL.ALLO.F.1SG.ERG		(3ABS).edun.APPL.ALLO.M.1SG.ERG

Hizkera eredua 1. Hainbat hizkeratan, ordea, alokutiboa galdera perpausetan ere ager daiteke, (2) adibidean ikus daitekeenez:

(2)	Zenbat	joan	ditun/k	elkar	ikusi	gabe?	(<i>Gure Jerusalem galdua, Aingeru Epalza</i>)
	zenbat	joan	(3ABS .edun. APPL. ALLO .F/M	elkar	ikusi	gabe	

Hizkera eredua 2. Bestalde, hizkera batzuetan, alokutiboa aditz nagusitik kanpo ere azal daiteke, bi kasu hauetan esaterako:

Azpi-hizkera eredua 1. Hizkera batzuetan, baldintzetako protasian ager daiteke forma alokutiboa.

(3)	Konfliktoa	ezinbestekoa	duk,
-----	------------	--------------	------

			(3ABS) .edun. ALLO .M	
konfliktoa	ezinbestekoa			((Euskal) literaturaren alde (eta kontra), Iban Zaldúa)
tramak	aurrera	egingo	badik	
			ba.(3ABS) .edun. APPL. ALLO .M	
tramak	aurrera	egingo		

Azpi-hizkera eredu 2. Zenbait hizkeratan, menpeko perpausetan ager daitezke forma alokutiboak.

(4)	Eguraldi	ona	egingo	di(n)ala (3ABS).edun.
	eguraldi	ona	egingo	APPL.ALLO.F .ELA
	pentsatzen	di(n)at (3ABS).edun.		
	pentsa.IPFV	APPL.ALLO. F.1SG.ERG		

Banaketa dialektala

Alberdik (1996: 284) egindako galdeketaren emaitzek erakusten dute galderetako alokutiboaren erabilera oso zabaldua dagoela. Bere datuen arabera, ekialdeko behe-nafarreraz eta zubereraz izan ezik, beste hizkeretako hiztunek erraz onartzen dute erabilera hau. Hain zuzen, gure datu-baseko erantzunek ere antzeko emaitza ematen dute.

Menpeko perpausetan, ostera, alokutiboa erabiltzeko debekua errespetatu egiten dela agertzen dute Alberdiren datuek. Berak ohartarazten duenez, joera honetatik desbideratzen diren hiztunak mendebaleko hiztun gazteak izan ohi dira. Hala ere, baldintzazko protasietan, zabalduago dago alokutiboa erabiltzeko joera eta ekialdeko hizkeretan izan ezik, beste hizkeretan lekukotzen du Alberdik (1996: 286).

Alberdiren lanaz geroztik egindako hizkeraz hizkerako deskribapenei begiratu gero, joera hauek mantendu egin direla ikusten dugu: Aranberrik (1996: 76-77) Ermuako hizkeran, hiketako alokutiboa galderazko perpausetan ere erabiltzen dela ohartarazten du. Menpeko perpausari dagokienez, baldintzetako protasian ere aurkitzen du, ez ordea, bestelako menpeko perpausetan. Elgoibarren ere ohikoa da galderetan (Makazaga 2009: 139) eta baldintzazko perpausetan ere hitanoa erabiltzen da

Eibarren (Sarasua et al. 2005: 247-248) zein Elgoibarren, batzuetan bederen (Makazaga 2009: 139). Baztaneko hizkera deskribatzerakoan, Salaburu eta Lakarrek (2005: 90) ohartarazten dute zaharrek ez dutela, oro har, hiketa erabiltzen menpeko perpausetan, baina gazteek bai. Galderazko perpausetan, aitzitik, ohikoa da alokutiboa entzutea zaharrengan ere.

Datu-basearen emaitzak

Aurreko kapituluan (ikus 23. kapitulua) azaldu dugunez, hiketako tratamendu alokutiboa euskararen lurralde osoan aurkitzen dugu adierazpen perpausetan. Gure datu-baseko erantzunei begira, antzeko zerbait esan dezakegu galdera-perpausari dagokienez, izan ere, baiezko erantzuna jaso dugu (2) eredurako hizkera guztietan, batean izan ezik. Ezezkoa Urdiñarben aurkitzen dugu, zuberotarrez beraz.

Menpeko perpausetako erabilera alokutiboari dagokionez, hau ere oso zabaldua dagoela ageri da datu-base honetako datuetan. Baldintzazko protasietan alokutiboa erabiltzeaz ari bagara, (3) eredukoa bezalako egituren berri eman dute datu-base honetako hizkera gehienetan, bitan izan ezik: Orbaizetakoan eta Urdiñarbekoan. Hala, ematen du ekialderen dauden hizkeretan ez dela eredu hau onartzen, ez ekialdeko nafarrez ezta zuberotarrez ere.

Azkenik, bestelako menpeko perpausetan alokutiboa erabiltzen duten hizkeren eremua murriztagoa dela ematen du. (4)koa bezalako perpausen erabileraren berri eman dute mendebaleko zenbait hizkeretan: Artea, Mungia, Otxandio, baita erdialdeko beste zenbaitetan ere: Hernani eta Itsasondo; Nafarroako zenbait hizkeretan ere: Arbizon eta Arizkun, eta baita nafar-lapurteraz Ziburun ere. Alabaina, badira eremu hauetako bakoitzean beste zenbait hizkera erabilera hau onartzen ez dutenak: mendebalean, ezezkoa eman dute Aramaio, Bergara eta Elgoibarreko hizkeretan, erdialdean Beizaman, Nafarroan Goizuetan eta Orbaizetan eta nafar-lapurteraz Oragarren. Zuberotarrez ere, Urdiñarben ezezko erantzuna jaso dugu.

Hala, datu-base honetako datuei begira, ematen du menpeko perpausetako alokutiboaren hedadura irregularra dela hizkeretan zehar, eta izan daiteke geografikoak ez diren beste faktore batzuen menpe egotea.

Eztabaida teorikoa

Hainbat gramatikak (Euskaltzaindia 1987 [1997]: 390-392; Hualde et al. 2003: 244; de Rijk 2008: 810) adierazten dute alokutibotasuna eskuarki perpaus nagusiari dagokion fenomeno dela, eta ez dela menpeko perpausetan ageri ohi. Dena dela, hiztun gazteek alokutiboa konpletiboetan eta galderetan ere erabiltzen dutela adierazi dute Hualde et al. (2003: 244). Galderetan alokutiboa onartzea gipuzkera eta bizkaierari egozten dizkio de Rijk (2008: 810).

Datu hauei erreparatuta, zilegi litzateke galdetzea zeri zor zaion alokutiboak jasaten duen murriztapen hau. Gehiegi sakondu ezin dugun arren, komeni da aipatzea Haddicanek (2018: 105) proposamen teoriko bat plazaratzen duela fenomeno hau azaltzeko. Bere proposamenaren arabera, morfema alokutiboak bokatiboaren gauzapan morfologikoak dira, eta horregatik, izenordain bokatiboek eurek bezala, ezin dute menpeko perpausetan agertu.

Aipamenak

- Alberdi, Xabier. 1996. *Euskararen tratamenduak: erabilera*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Aranberri, Fernando. 1996. *Ermua eta Eitzako euskara*. Ermua: Ermuko Udaleko Euskara Batzordea.
- de Rijk, Rudolf P.G.. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): MIT Press.
- Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1997]
- Haddican, Bill. 2018. «The syntax of Basque allocutive clitics» *Glossa: a journal of general linguistics*, 3(1), 101.
- Hualde, Jose Ignacio, Beñat Oyharçabal eta Jon Ortiz de Urbina. 2003. «Allocutive forms». In Jose Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*. Berlin/New York: De Gruyter, 242-246.
- Makazaga, Jesus Mari. 2009. *Elgoibarko euskara*. Ph.D. diss., UPV/EHU.
- Salaburu, Pello and Maite Lakar. 2005. *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Iruñea: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Sarasua, Asier, Aintzane Agirrebeña and Leire Zenarruzabeitia. 2005. *Eibarko euskara. Gure hizketaren doinu eta berbak*. Eibar: Eibarko Udala.